

MU

0.

Carpe diem. Oso erraza da azaltzen, matematikako eskolaren ondotik eta gimnasiakoaren aurretik eskolan irakatsi ziguten gisan; ez naiz oroitzen zer ikasturtetan zehazki, bost axola. Aprobetxatu unea. Oso erraza izan zen ulertzen, baina orain da unea, eta begira zenbat buelta eman dizkiogun kakari ordutik, sakoneko zentzua hartzen diodan garaia. Zehazkiago, ez dakit zer dela-eta haur bati uneaz hitz egite hori, haren dimentsioa beste bat da-eta eta denboraren pertzepzioak helduenarekin deus ikustekorik ez du eta. Basakume zoragarriak. Inoiz horretaz ezer ez entzun izana gustatuko litzaidake, orain, parez pare gauden honetan, ene lagun, horretaz hitz egin diezadazun ene belarriek lehenbiziko aldiz entzungo balute bezala; izan ere, sinetsi nahi dut kolpea indartsuagoa litzatekeela hartara, bortitzagoa, eta ondorioak, esatea gustuko dugun eran, ezin zehaztukoak liratekeela. Zuk diozun moduan, bizitzak hatzetatik ihes egiten digu, hareak legez, eta nik sentitzen dut asko dagoela egiteko oraindik, nahiz eta ahalegin hutsean geratu. Edan ditzagun gure garagardoak, eta irten gaitezen kalera. Garaiz gabiltza, eta oraindik ahalmena dugu asperdurari aurre egiteko, ohikotasunari ihes egiteko eta amesteko. Edo amesten utzi edo amets gaitzatela, zuk nahi gisan. Helburua ez da mundua aldatzea, ez eta ez garena bihurtzea ere. Xedea GEURE mundua aldatzea da. Ez gara jenioak. Ez gara izan inoiz, ez eta inoiz halakorik ezagutu ere.

1.

Apirila. Berdin da. Zer axola. Kexati jaiki naiz. Kanpoan euria ari du, eta zerikusi zuzena du nire gogo aldaratearekin. Hainbeste egun lainotzarra zeruan eta eguzkirik ikusi gabe egoteak edonori eragiten dio. Sekuentziak astunagoak dira goizeko lehen orduetan, kafe asko prestatu arren, leihoko tanta lasterketei begira hasperen eginez. Bihar ere euria egingo du. Negu osoa euripean. Ez duguna nahi izaten dugu beti, eta eguzkia falta da hemen eta hezetasuna sobera dago.

Lanerako bidean, atzaparrak mozteko garaia dela pentsatu dut. Artazi pareta oparitu zidaten, ilea mozteko bata eta bolumena kentzeko bestea (to, harrapazak), eta erabilera ederra ematen diet biei ala biei: apur bat moztu hemen, beste pixka bat han, eta listo. Kontua da norbaitek garondoko aldrebeskeria, nork ikusten ez duen hori konpontzeko tenorea iritsi dela. Dena den, zeinahi delarik emaitza, hobe prozesua jolasgarria izatea. Horrek axola du.

Oinez noa. Zorroan, eramangarria eta entsaladaz beteriko tupperwarea (ez nolanahikoa) daramazkit, eta, eskuan, aterkia, nire aterki arlekinatu zarpaila. Barre egiten diozue aterkiari, baina, haren azpian, sekula ez naiz aritzen marmarrean. Mukiz jositako urteen poderioz, garrantzia ematen hasi natzaio tramankulu honi, betetzen duen funtzioagatik baino gehiago nirekin daramatzan urteengatik. Estimutan dut. Osagarria. A zer hitz puska, zer nazka. Beste batzuen pare: ebentu, sentsazio termiko eta izaera. Marketin aluak du guztiaren errua. Kontzertu-jaialdi, hozbero edo betiko

ostia txarra dauden lekuan, ken bitez aurreko adibide guztiak. Bide batez, modak nazka-nazka eginda nauka, argi eta garbi. Nahi baino galtza, atorra eta kamiseta gehiago ditut. Denetarik dut, eta, horrexegatik, bi urte dira dendarik zapaldu ez dudala, ezta beharrik ere. Galtzerdiak merkatuan, eta oraindik badut erabili gabeko azpiko arropa.

Gogoko dut oinez ibiltzea. Begirada galdu, eta ñabardura berriak aurkitzea, etxetik atera bezain pronto aurrean dudan basoan edo lan egiten dudan auzora eramaten nauen Trenbide kaleko ibai ertzeko pasealekutik joatean. Zaharra eta ederra da baso hori; babestua batzuetan, eta ahaztua komeni denean. Betiko kontua. Jainkoari edo deabruari eskerrak, egon badaude oraindik haritzak eta lizarrak, gaztainondoak eta akaziak. Ikustera iritsi ez naizen urkiren bat ere badagoela esan didate, pikondoak eta batek daki zer gehiago. Pinu gogaigarria ere badago (zer egingo diogu, bada!), eta makalen bat ere bada trenbide ertzean. Ikusi ditut arrabioak, basurdeak, hontzak, katagorriak, ahateak eta zikoinak, desagerturik uste nituen okilak, basakatu mordoa eta tamaina ederreko sugeak (ziurrenik, sugedorriak). Funtsean, aparteko ezer ez, baina aski ni bezalako kaleko arratoi batentzat. Basoa berde dago orain. Zinez berde. Esperantzaz, nahi dut esan, eta, euria leuna bada eta oso haize handia ez badabil, merezi du txangoak. Aurten ez dut izan sarritan lanera oinez joateko aukera.

Lana. Lan madarikatua. Eskerrak ez nagoen inoiz han. Hau da, mentalki ez nago inoiz han. Leku hobe batera ihesean nabil beti. Zorioneko irudimena. Ametsetan beti. Arrazoiaren beste aldean, nori egoten uzten dioten muga: jolas orduko atezutik gertu eta buruarekin baietz esanez, oso arreta handia jarri gabe; jokoz kanpo ez geratzeko nahikoa. Gogoan dut eskolan antzeko

leloa zela gutxi gorabehera. Bueno, argi esate aldera, eskolan lelo berbera zen. Fisikoki bertan egotea baino askoz gehiago ez eskatu niri. Eta neure onetik ez nau lanak ateratzen berez, ez eta laneko jarduera jakin batek ere. Uste dut gehiago dela lana norekin egiten duzun. Ez dut gustu berdinik partekatzeko zortetik izan lankideekin. Eskolan bezalatsu, nioenez. Horixe bada. Kontua da toki batera lanera joatea sosaren truke, eta listo. Desiratzen dudak bakarra lehenbailehen amaitzea da. Norbaiti zakila jaten ariko banintzaio ere berdin pentsatuko nukeela uste dut.

Etxera bueltan ile apaindegian hitzordua egitea ahaztu zaidala oroitu naiz. Bost axola gaur edo bihar: elementuen ordenak ez du produktua aldatzen. Etxera iritsi bezain pronto guraizekada pare bat gehiago emango ditut, ea noraino irits naitekeen.

Asperdura neure bizitzako eragilerik handienetako bat da. Edo, zuzenago, haren aurkako jarduna. Berdin da. Nor lanetik etxera bueltatu, eta sofán esertzea da errazena; zigarroa piztu, eta uhin katodikoen dosi eder bat irenstea; aurrez prestatutako poltsa ireki, mikrouhin labean sartu, botoi egokia sakatu (zer azkar biratzen eta berotzen duen ikusi), eta sofara itzultzea, ahate batek bezala irensteko. Ezbairik gabe, denbora aprobetxatzeko modu egokia irabazten da prozesu horretan guztian. Laga sukalde ekonomikoak! Zertarako nahi ditugu brasa eta suak, botoi bat sakatze hutsarekin nork nahi duena lortzen badu esan orduko ia? Aspertzen naizenez gero, nahiago dut ordu batzuk sutan igaro, plo-ploari begira eta usainek zentzuak har ditzaten utziz.

Zerbait prestatzera noa.

Halaz guztiz, hau dena harrigarria suertatzen zait. Harrigarria da nola denbora irabazi nahi dugun (hain altxor preziatua) gehiago aspertzeko. Hau diot telebista. oro har,

sekulako karraka delako; eta hobe ez badugu txantxa zenbat diru ordaintzen dugun hitz egiten. Zenbat balio du telebistako segundo batek? Zabor hutsa dena? Orain, gutxienez badira leiho batzuk pantaila txikiaren kiratsa jasangarriago egiten dutenak, telesail gisa emanak, hala nola: Deadwood, Breaking Bad...bla bla, bla; bakoitzak bere kuttunak ditu, neuk ere.

Zuzendari ospetsuak direla, sona handiko aktoreak, zine formatua... kontua eta zikina. Esker mila opariagatik, HBO & Co.

Hozkailua ireki eta begiratu azkar baten ondotik prestatuko dudanaren ideia egin dut. Estalkian tokia egin eta ondo garbitu dut. Behar dudan guztia prestatu: lanabesak eta gainerakoa. Musikaz pentsatu orduko entzungailu batzuk ipini ditut bolumen baxuan entzunaldi ez-kritiko baterako. Denbora-pasa hutsa. Labanak mahairen gainean zarata ateratzen du Mark Sandmanen ahotsaren gainetik, ta ta ta.

Pentsatzen nenbilen, nioen. Ikusleak, adibidez. Filmeen gehiengoa ikusle nerabe bati dagoela zuzendua eta bat, adindua izaki, erabat aspertua bukatzen duela Jolybudeko su artifizialekin. Non ote daude Billy wilder eta enparauak! Gainera, zinema egiazkoa eta nabarmenki errentagarria balitzateke oraindik antzerki antzezleak lepoa tenteturik begiratuko lioke zinema aktoreari, eta honek gauza bera egingo luke telebistakoekin. Grazia egiten dit, antza, gertaera-segida hau aldatzen ari dela ikusteak.

Albistegiak. Hori da hori modua gertatzen ari dena azalarazteko! Zer erritmoa! Ñabardura guztiak zainduak eta neurtuak. Aurkezle pertxentak komeni denean serio demonio jartzen dakitenak istantean arras bestelakotzeko giroa, guztiz umoretsu bihurturik danbor hots eta ongi pentsatutako soinuez lagundurik.

Publizitatea. Rekristo, zer bonbardaketa! Obnipresentea. Bah, gai honek ere aspertzen nau. Obniausentea aitortzen zen lagun bat. Umoretsua. Zorionekoa ni dohain hori banu. Antza kexati jarraitzen dut.

Kontua da telebista analogikotik digitalerako jauzia egiteko hainbat gauza aldatu behar direla seinalea egoki jaso nahi bada, etxe honetan sekula izan ez duguna, bestalde. Eta noski, lau bizilagun garenez faktura handia da. Eta neure buruari galdetzen diot Antena3, Telecinco, TVE eta beste guztiak ikusteko pena merezi ote duen dirua ordaintzea. Erantzuna badakit, baina ez naiz bakarrik bizi. Gaur zugatik eta bihar nigatik, hobe horrela pentsatzea.

Irakinaldia zaindu. Usainek memorian finkaturiko oroimenak dakartzate istantean: haitzetan lehertzen zen olatuak karramarroa izutzen zuenean orduantxe baino ez zenion egiten kasu lapari.

Asperdura, nioen. Gogoan dut umea nintzelarik orduak eta orduak egoten nintzela nire gelan gitarrarekin. Ez bakarrik egon nahi nuelako, baizik aspertu egiten nintzelako (barka. Inor sumintzeko asmorik gabe). Sei sokek inoiz inork eraman nauen lekuetara eraman naute. Irakurketak beharbada. Bai, irakurtzen ere hegan egin dut. Bi jarduera hauek asaldatzen jarraitzen naute, eta landu egiten ditut. Ohikotasun amorragarritik ihes egiten laguntzen didate. Oraindik.

Tapa altxa eta emaitza pozoz begiratu dut. Honek itxura ona du. John Fahey aurikularretan musika itzaltzerakoan.

Plater bana esku bakoitzean mahaira inguratu eta bertan utzi ditut tentu handiz. Inoiz ez dut mantalik jartzen. Ardo botila ireki, Errioxa: San Vicente, Egurenena. Orain dela gutxi

oparitu zidaten eta sekulakoa dago. Kojonudoa, esango nuke nik. Zenbatean egongo da? Dena den, aspaldi ez geniola egurra ematen gertukoa dugun ardo honi. Nago, ardo honekin ikasi genuela edaten eta orain garaia iritsi dela beste batzuk dastatzeko; ibilitako bidea arbuiatu gabe. Beltza apetan, menu honekin zuria hobe legokeela uzte dudan arren, beranduegi jada. Gaur egun edonongo txurik ditugu eskuragarri negozio eta garai berriei eskerrak. Garaioak non aberastu berri den edozein hasiberri mukitsuk pare bat dastatzea klase puta hartzeagatik ardoei buruz badakien eta gastronomiaz baleko menua jateko iristen zaiolako egun. Akelarrez, Aduriz edo Arzakez mintzo den hasiberri berbera, nahiz eta bere bizitza puta osoan ez dituen probatu ere egin. Japoniar sukaldaritzaz edo ekialdekoaz Txubillo japoniar jatetxea edo Irungo Yong Feng bakarrik probatu arren. Duela gutxira arte baba eta pasta gehiegi eginak jaten zituen, eta azken hau soilik tomate eta txorizoarekin. Egun”denteaz” ikaragarritzko irmotasunarekin eta bolumen ozenez hitz egiten duen arlote berbera. Ausardia du aluak. Guri, kontrara, zeruari tu egiten ez dugunok beti geratuko zaigu Errioxa. Zer demontre! Eta gainera hemendik gertu; Duero eta Somontano baino gertuago, Erdialdeko Europa edo Afrika baino. Edan dugu. Elkar musukatu dugu. Berririo edan dugu eta bakoitzak bere platerera begiratu dugu.

Une zehatz horretan telefonoak jo du. Telefono alua.

- Har ezan, hiretzat dun-eta ziur-, esan diot, adarra joz.

Begirada ahora hurbiltzen ari den sardexkan dut oraindik. Txistua nabari dut ohorezko gonbidatua hartzeko prest, haizea hartuz eta kasik begiak itxiz.

-Jon...eta hiretzako duk, baboa- erantzuten dit Kokok irribarrez (burua pixka bat beheratuz, txantxari jarraitzeko gonbita eginaz).

- Esaion afaltzen bukatu orduko deituko diodala-badaki egoskorra naizela eta mahaitik altxatzeak nagikeria eragiten didala.

- Kabina batetik deitzen ari dela zioke mugikorreko bateria agortu zaiolako-, azaldu dit hasperenka.

-Ongi da.

Aurikularra hartu eta arretaz entzun dut. Bakelitzako telefono zahar bat da. Lisboako merkatuan erosi nuen; kable eraberritu batekin eta beste garai batera eramaten zaituen soinu lazgarriarekin. Lisboa bezalatsu. Jon aireportuan dago. Ludmila Berlinetik iristear dago eta bila joan zaio. Autoa parkingean izorratu da. Erre usaina eta kea dario. Segurua ez dago eguneratua. Hori zorte txarra da, Jonek normalean ez duen zerbait. Hamar minutu barru aterako naizela eta autoarena bihar Unaiekin (lagun mekaniko batekin) konponduko dugula esaten diot. Autoa zehazki non dagoen azaldu dit, eta hasperen lasaia egiten entzuten diot.

Ardoak itxaron egin beharko du. Putada. Zaharrak ardo botila onei airea ateratzeko gailua oparitu dit. Estreinu eta Kokok nirekin datorrela dio. Presaka jan dugu, lastima. Ostirala da behintzat.

Autoa martxan jartzea kosta zait, beti bezala. Lehenengo martxa sartu eta aireporturako bidea hartu dugu. Liarsak jarri eta Kokok motelagoa den zerbait jartzea eskatu dit. Ez dut ezer motelagorik. Gainsbourg ez dakit nondik atera eta jarri egin du, irribarrez. Burua pittin bat makurtu eta zeharka

begiratu dit lehenago hasi dugun txantxari jarraitzeko gonbita eginaz. Barre egiten dut, errepideari arreta galdu gabe, ez eta Don Sergeri ere; gauza batek ez du bestea ukatzen.

Hegazkinez egin nuen azken bidaia duela bi urte izan zen. Bakero berri batzuk erosi eta aireportura abiatu ginen. Denda batera sartu nintzen azkena eta abioi batera igo nintzen azkenaurrekoa. Azkena, itzulera bidaia izan zen. Kasualitatez gaur oroitu dut dendarena. Herman Hesse irakurtzen egongo banintz seinale bat litzatekeela esango nuke.

Zita paratu dugun lekura iristean autoa aurkitu dut. Euria ari du barra-barra eta Jonen auto txikiaren barruan kristalek duten lanbro ugariaren artetik konkorr bat mugitzen ikus daiteke. Esku pareta paratu da kristalean eta gertatzen ari denaren berri eman digute. Larrutan ari dira. Elkar begiratu gara, aluki (berriro ere). Begiradek argiro adierazten dute zer dagoen ezbaian: edo larrualdia izorratzea edo larrutan hastea geu ere. Agian bi koloreetara apustu egin genezake. Autoa berearekiko paraleloan utzi dut, baina bi autoen artean tarte utziz. Eta jertsea kendu dut. Kokok eskua sartu du nire galtzetan eta harriturik begiratu dut gerriz azpitik larrugorritan dagoela ikustean. Iaioa da gero, ez naiz ohartu ere egin. Arnasa hartu nahi dudanerako nire gainean da hanka-lepo. Aski jakina da autoa toki deserosoa dela halakoetarako, baina Kokorekin ez da hala. Nik bere tamaina eta izaeragatik dela esan diot, txikia eta malgua, baina indartsua. Eta berak erantzun dit praktika kontua dela; ez gutxiago ez gehiago. Argi dago nik ez dudala askorik eta berari uzten diot egiten. Gorenera iritsi garenean biak batera, begi bazterretik konkorr bitan bihurtua ikusi dut Jonen autotik irteten eta kafetegira doala korrika euriarengandik ahal moduan babestuz. Ez dira gure lagunak. Sinestezina da. Galtzak igo ditut eta Koko bere lekura

doa. Aulkia zuzendu eta bolantea eutsi dut burua eta begiekin galdetzen dudan bitartean. Autoak albo batean duen markak baieztatzen dit, baietz, Jonen autoa dela hori. Kokok mugikorra hartu du, SMS bat du: “kafetegian gauden”, dio.

Autotik irten eta leku guztietan sexua usaintzen da. Eta pozez, korrika goaz euripean kafetegira. Elkar ikusi eta besarkatu egin gara. Lagun onen gisan musukatu eta aurpegiak ikusteko eseri egin gara. Komunetatik hurbilen dagoen izkinatik ikusten ditut Jonen autotik modu misteriosuan irten den bikotea. Elkarrizketak misteriotik urrun garamatza, ahazteraino. Ludmilak Berlinez hitz egin du eta guk, edukazioz, arretaz entzun dugu. Garagardoak hustu eta irtetera habiatu gara. Antza, eta jada hemen gaudenez, etxerako bidean egokitzen den kontzertu bat ikusiko dugu. Jon bikote arraroaz agurtu da diskretuki eta kafetegitik irten gara. Koko eta ni elkar begiratu gara eta ez dugu txintik ere esan. Deus baino lehen diskrezioa, nik dakidan batek esango lukeen bezala.

2.

Kokok kobre koloreko ile kizkurtua darama. Berrogeita bi urte ditu eta onenean dago, berak badaki. Ederra da zinez. Itxaso nahasia bezala ikaratu baina erakarri egiten duena; nahiz eta erre, begiratzeari utz ez dakiokeen sua bezalakoa. Alu halakoa. Gorputz paregabea du auskalo nondik aterea ez baitu deus ere egiten. Ariketarik esan nahi dut. Kabroi batek bezala erretzen du. Jakin-mina eragiten du. Banpiresa baten antzera gehiago adierazten du esan baino; begiratu eta biluztu egiten zaitu, edo hil, edo nabarmen utzi, edo ziur sentiarazten saiatu. Ziur, joder. Oroz gain, liluratu egiten du. Denak aho zabalik begiratzen diogu txunditurik hitz egiten duenean, baxua jotzen eszenatokian, jatean, irri egitean. Klasea duela esango nuke kontu horretan sinetsiko banu edo, agian, beste klase batekoa da. Batzuetan itsasotik sortua dela pentsatu dut. Sirenaz mozorrotutako leviatana urazaleratu zain dagoena oharkabeturik gaudenean azken kolpea emateko; eta hartarako hipnotizatu egiten gaita; eta bere kantuekin geldiarazi; eta begiratu egiten gaitu zer zapore izango dugun pentsatzen duen bitartean, momentu hortaz gozatuz. Izan ere, nahiz eta ongi ezagutu, nor ez da egiazkoa dela sinestera heltzen. Denak sor dezakegu lilura, baina beti izaten denbora jakin batez. Hau amaitu ostean, dohain zirenak akats bihurturik zoko usaia hartzen dute. Argazkia kolorez aldatzen da. Naiz argazki bera izan ez da berdin ikusten. Koko salbu, noski. Bera, salbu.

Koko ez da nire bikotea, nahiago nuke. Beno, nahiago genuke denok (edo hori uste dut nik behintzat). Sartu eta irten nahi duenean egiten da bere erritmora, eta ez zaitez ulertzen saiatu alferrik ari baitzara. Bera horrelakoa da: zuku bat bezain naturala. Hamar urte da ezagutzen dugula eta harritzen jarraitzen gaitu egunero, ez nabil txantxetan. Nola ez, batzuetan jasangaitza suertatzen da. Izan ere, nahiz eta aske eta askatasunean bizitzen saiatu askotan malkartsua gertatzen da bidea kaosa deritzogunaren erruz. Honetaz irakurtzea, hitz egitea eta eztabaidatzea liluragarria eta aberasgarria da. Bizitzea beste kontu bat da. Argitu ezinezko kaosa zuretzat, berariazko errutina beretzat. Hori bai, hainbeste anabasaren artean inoiz ez duzu estropezu egiten ikusiko, barrabilak jokatu nahi?. Nola egiten duen... hori jakin nahiko nuke nik.

Kokok jotzen daki, sinets dezakezu?. Ez dakit zertan gerriko marroia izan zela dio. Ez dut inoiz praktikatzen ikusi eta bere etxean gerriko marroi horrekin erlazorik duen ezer ere ez dut topatu. Baina behin benetan jotzen ikusi genuen. Ostiak esan nahi dut. Egia esan ederraz libratu gintuen Jon eta ni mozkorraldi ero horietako gau batean; edozein tabernazulo ezezagunetan bukatu eta behar ez duzun edonorekin elkartzen zarenean. Baina han zegoen bera larrialdi latzetik gu atereaz. Eta beno, nik ez dudanez ostia erdirik ere, pisu gutxikoa eta ahul itxurakoa, eskertzen diot. Jon, laurogeita hamabost kilokoa eta hartz baten gisako besoak izaki, lotsak hartua. Ez zekiat zergatik, esan diot narkotikoki, hiru hituen eta harrapatuak gintuan. Armekin! Nik negar egiten nuen eta bera amorruez uluka ero baten antzera, nahiz eta esku hori galdua genuela jakin. Berdin dio, oraindik ere lotsa sentitzen du oroitzean. Eta nik esaten diot hiru putakume horiek lotsatuago egongo direla eta oraindik ere biraoka egongo direla liskarra hastea eragin zuen kili-kolo zegoen mahaia oroitzen duten

bakoitzean. Guztia lurrera eroritako garagardo puta batengatik. Zer tontoak garen, ezta? Zakilak. Gorriena da, eta horri buruz hitz egin dugu, gertakizunen egunean, gauzak konpontze bidean zeudenean, ez genuela Kokoren osasun fisikoarengatik momentu bakar batean ere zalantzarik egin. Areago, hiru zerriengatik kezkatuagoak ginen. Zauri irekiak, odola, hezurak, haragia. Txirbilak. Benetan, desatsegina ere izan zen. Gogoan dut putetxe hark El Desván del Macho izena zuela.

Kokok dio jipoitzen jakin behar dela, tipo horiek oso arroak zirela baina astintzen ideia putarik ez zutela eta, horregatik, “egoera erabat kontrolatua nuen, ongi ikus zenezaketen moduan”. Irudika ezazu aingeru bat odoleztaturiko lumarekin eskuan, mina zabalduz gupida gabe. Halakoa zen erakutsi zigun ekintza; izan ere batzuetan pentsatzen dut ametsa izan zela edo gaizki oroitzen dudan pelikula (nahasi egiten dudana). Noizik eta behin egiazkoa bihurtzen dena elkar oroitzen dugunean bizitakoa. Eskerrak Ludmila ez zegoen han. Uste dut esan ere ez diogula egin, kontuak atera. Hala eskatu zigun Kokok, eta nik dakidala, gure aldetik tratua bete dugu. Koko ez da indarkeriari emana, mesedez!, baina beldurra eman dezake biolentzia egoera jakin batean. Gutako inork ez dio beldurrik, esatea ere burugabea da.

Kokok baxua ikaragarri ongi jotzen du. Eszenan 50. hamarkadako Kim Gordon bat dirudi, baina hemengoa, irudika ezazu ahal baduzu. Zoru gainean dabilela liluratu egiten badu imajina ezazu eszenatoki batean... Gainera, argia duten jende modu horretakoa da. Begiratzeari utzi ezin diozun horietakoa. Bada jendea aingeruek bezala jotzen dutena, baina motel, pitxar batek baino figura gutxiago dute eta eszenatokian antzeztu ere egiten da. Berak hori dio, bederen, guztiz seguru (no te jode, fotogenika halakoa). Sekulako taldea du, Chisme, eta arrakasta

nahikokoa; eta nahi dutena baino ikusle kopuru gehiagokoa. Bost urte daramatzate Madrilgo zigilu batekin eta gustura ikusten dira, kontuak kontu. Kokok baxu zatar bat jotzen du, soinu ona eta zaharra duena: Ovation magnuma. Ez dira asko ikusten hemendik. Pentsatzen dut bere gorputzeko giharrak baxu puta horren pisuak zizelkatzen dituela. Noizbait bizkarreko arazoak izango ditu... Berari ez zaiola axola dirudi. Asteburu honetarako Bassman-a eskatu dit (b hizkia falta zaio, eta horrek grazia egiten dio jende guztiari), etxean gordetzen dudan ukendua, igandeetako arropa garbia. Baietz esan diot jakina.

Kokok iragan iluna du. Batzuetan era batera kontatzen duena eta, besteetan, beste istorio zeharo desberdina. Baina moldatzen da kontatzen duenari sinesgarritasuna ematen. Hala, bere kondaira zabaltzea lortu du gertakari lauso erakargarriekin beteaz. Guztioi ezagunak egiten zaizkigunak baina ezin ditugunak zehaztu; eta hala, noizean noiz, heuretara itzultzeko eskatzen diogu ipuin kontalari gisa edo kafetegi garestietako hitzontzi bezala, beste hainbatetan, bere esku mugimendu finez antzeztearen pasarte batzuei sakontasuna emateko edo kentzeko.

Zeren Kokok, bere istoriora itzultzea onartzen duenean, zulo zikinetakoko dramaturgoen jantziz mozorrotzen da. Alua duen Chinaskiz, zeinari ñabarduretan bizitza doakion, arruntei azukrea inurriei bezala erakargarri eginaz, nahiz eta ezohikoak iruditu. Pare bat belar-pattar lehor eta gorpuzdun atera eta ikusiko duzu nola puzten den; eta ongi ohartuz gero ikusiko duzu, nahiz eta zortzi ukalondo izan mahaiaren gainean begiradak, algarak eta harridura keinuak gehituko direla gure inguruan. Bada berak duen zera horren zati txiki bat lortzen ahalegintzen denik bizi osoan, dohaina, grazia... Bada bizitza osoa bere pertsonaia lantzen

pasatzen duenik: jantzi, hitz egiteko era bat eman, bizitzeko modu bat; apur bat hemendik, beste pittin bat handik: ikusitako antzerki bakoitza, telebistako show bakoitzean ohartu dituen bertute garrantzitsu guztiak (ikebana batean laburbilduz), iritzi-liderrak. Behi baten moduan guztia digeritzeko (asmoetan baldar eta ondorio txarrekin). Guziaz ile-apaindegietan dauden aldizkarietako pailazo memelo baten gisan geratzeko. Koko ez da horietakoa.

Inork ez digu Kokok bezainbesteko egurrik eman. Hobeagoak egin gaitu. Musikari hobeak, pertsona hobeak. Bete egin digu. Intelektualki gauza mordoan ateak ireki zizkigun. Liburu gehiago irakurri ditu, disko gehiago entzun, inor baino kontzertu gehiago ikusi. Ezagutu genuenean ezin genuen sinetsi: film bat egin berri zuen eta lehertzeaz zegoen izarra zen. Zer egiten zuen gurekin hitz egiten? Orain barre egiten dugu hartaz guztiaz. Inork ez du faltan botatzen eta berak ere ez du filmetako mundu nazkagarria faltan botatzen. Bere aurrean ezin da gaiaz hitz egin, tabu antzeko zerbait da, egia esan, oso ostia txarrean jartzen duena.

Koko ez da hemen gertukoa. Ludmilak jakin zuen, Interneten zinefiloen blogetan nabigatzen, Cartagenan jaio zela eta egun berrogeita bi urte dituela. Eta hala sinetsita gaude. Agian itsas armadako ofizial garrantzitsu baten alaba dela imajinatzen dugu. Familia oneko ardi beltza, tradizio militarrekoa; alderrai eta lotsagabea. Litekeena da. Inork ez du bera bezain gaizki hitz egiten edozein armadaz. Ezein autoritatez hitz egiten du gaizki, egia esan. Dena den, irrigarriena, eta hemen irakaspena, berak autoritatea duela da. Irabazia eta errespetatua (hori ezin daiteke uka). Baina autoritatea, hondarrean; eta kasu egiten diogunean pozik ikusten zaio, alu halakoa.

Duela urte batzuk Kokok ama izan nahi zuen. Neure hazia nahi zuen eta nik gustu handiz eman nion, baina zerbaitek huts egin zuen. Kokok txarto pasatu zuen, denetariko aukerak frogatu ostean, baita klinikoki ere, ez zen haurdun geratu. Baina hori aspaldiko kontua da eta ahaztea asko kosta zaigun istorioa. Zertarako gogoratu?

3.

KARRAMARRO

Como un cangrejito camino,
patas mojadas y sal en la boca.
Aprendiendo a golpe de mar
que la arena como viene, se va.

Crótalos en la roca.
Esperando olas que traigan
despistados espectadores.
Carnaza para embustes
en marcos incomparables,
en auditorios para sordos.
Mucho vatio de luz y sonido,
efectos y chupas guapas
que harán del cangrejito
el rey de la barraca.

En la trastienda
llueve un revival ochentero.
Paraguas de ron a pelo,
ojos de vidrio
y boogies rojos a juego
con la caja del muerto.
Mientras llega la hora,
espero.

Maldita playa de arenas blancas,
me asustan tus veraneantes,

sus toallitas y aceites protectores.
Sus deseos de temporada
y sus bellas estampas.
Camino esquivándoles en mi casa,
con mi culo por delante
y la paciencia intacta.

Taberna gainezka dago. Hormak izerditzen ari dira, bolumenak estutu egiten du eta eszenatoki gainean musika irmoa, erakargarria, kabernikola. Tabako-ke eta giro iluneko musika, ez ikaratzekoa, baizik beharrezkoa giro egokia lortzeko. Soinu ederra dute eta entseguak eginak. Bigarrena gauza ohikoa da inguru honetan. Legea da, hobe esan. Baina soinu ona edukitzea daramaten ekipoari dagokio, eta ez dut markez hitz egin nahi. Ñabardura horiek zaintzen dituen jendea atsegin dut. Zure soinua daramazun ekipoari lotua dago; eta nik garrantzi handia ematen diot soinuari. Entzunaldi kritikoa gogoko dut. Baina niretzako, argi dago. Lehen lerroan gaude dezibelioak janez eta anbar zukua edanez. Garagardo gehiagoren bila noa, bide batez. Barrara iritsi aurretik borroka pixka bat egokitzen da. Zerbitzariarekin ulertu eta eskuak beterik buelta lehengo tokira. Ahal bada. Tentsio askoko musika abiarazi da: gitarrak kili-kolo baina oreka mantenduz. Giroa denon jabe egin da, behialako ikusleak, arimen joan- etorriak eszena laguntzen dutenak, zentzua ematen diotenak. Nota grabeek umoreak baretzen, gure zelulen nukleoa lasaitzen dituzte Om alkoholiko baten gisan. Begirada konplize partekatuak, fidelitasun ziurtatuak, kontrola galduko duen zaldiaren aho-uhala eta zuk berea. Ez da gauza bera gertatzen entzule guztiengan. Bada asalaturik buelta eman duen jendea. Direnak eta ez direnak esan bekatuaren gainean, eta irainak bekatarien gain. Bekatariak iraindu zeruari erregutuz (sanedrin) zaharraren bidezko errieta jasotzeko ezarritako bakea hautsi

dutenei, ohikoa dena, status quo zehatza; euren arropa hutsek ozen aldarrikatzen dutena. Eurentzako musika hau pornografia hutsa da. Bada ez hotz ez bero geratzen denik ere, ulertzen dutenak baina ez direnak zale egiten; nahiz eta aldeztu aurretik borondatea eduki arren bertan goxo geratzen ez direnak. Haien zatia musika mota hau gogaikarria da. Sekula amaitzen ez den abesti errepikatua, desiratzen ez den purgatorio baten antzekoa. Bada ulertzen ez duenik. Bere erreakzioa jaso duen hezkuntza eta kulturari dagokio. Badira begirunez estoikoki jasaten dutenak hurrengo asperdurazko zaplaztekoa. Aspertuak iritsi direnei, eta bada aho zabalka daudenak lotsagabeki (ze koño), aspertzen dituzten nagiak. Eta bada zutabeen paraturik, abilki, lo hartzen duenik ere jendea amorratuz; loti ederra dagoen lekuan egoteagatik hil egingo lukeelako. Joder, eta bada beste jende pila bat ere. Baina benetan garrantzia duena, aurretik aipatu dudana konplizitate hori da. Beste

guztiak niri bost. Nahiz bost horiek joko asko eman dezaketen. Mundu hontara lotzen nauen gauza bakarrenetakoa da. Bakarrenetakoa, baina nahikoa mendira ez jotzeko ahuntz ero baten antzera. Musikak barrabiletatik heldua nauka, argi hitz egite aldera, eta oso gaztetatik. Hori nire zaharrari zor diot zalantzarik gabe. Baxua jotzen zuen gaztetan (nahiko ongi esan didatenez) eta nahiz eta urte batzuk lehenago betirako jotzeari utzi, oraindik ere ahulezia sentitzen du akorde aproposak jotzen direnean; haietaz gozatzeko airea eta denbora hartzen duenean. Bizitzaren gauzak. Urte askoren ondoren bere belaunaldiko batekin jotzeko parada izan dut. Berak asko miresten duen bat eta, hargatik, nola ez, nire errespetu osoa duena. Eta saio hartan ume batek bezala gozatu nuen, besteetan egoten ez den konnotazioak zeudelako. Aita amak oparitutako gitarra batekin oroitzen dut. Oraindik ere hor du, gereziondoz egina. Soinu eder eta erakargarriak ditu. Noizbehinka

astinaldi bat edo beste ematen diot eta atsegina da. Gitarra bat, garagardoa eta piztutako pipa bat. Benetako tabakoaren usaina: sakona eta lurrin usaia duena; besteentzako kiratsa, baina niri magnetizatu egiten nauena. Desio nuen argazki hori, gero neurea egin nuen. Hori bakarrik naiz, eta hori guztia naiz. Hain erraza. Ez dit lotsarik sorrarazten, guztiz kontrara. Ez da harrotasunera zerikusirik duen ezertara ere iristen, inondik ere. Baina ongi sentiarazten nau. Tipo horiek bezain ongi. Diskoa erosiko diet denda jartzen badute. Jon desagertu egun da eta ikusten dudanerako garagardo eta irribarreak dakartza.

-Badakik nor etorri den?-, oihu egin dit belarrira.

Bere atzera begiratu eta Koko ikusi dut pertsona sendo, bizardun, metro laurogeita hamazerbait eta nahaste ezina den berde koloreko txupa daraman bati hitz eta pitz etenik gabe. Hori ahalbidetzeko Koko konkorrera igo zaio literalki. Inguruan zuten jendea ez zegoen preseski kontent. Kabroi halakoak... Barrara eramatea deliberatu dut.

- Baina, Txua, zein zulotik atera haiz?

- Nire amaren zulotik.

Barre egin eta elkar besarkatu gara. Gure agurtzeko modua da; beti protokolo bera.

- Chicagon grabatzen egon duk, Gizon Handiarekin-, esan du Kokok.

-Egia da beraz esaten dutena... Eta nork ordaintzen din hori guztia?

- Nire amaren zuloak-, esan du Txuak.

- Putakume halakoa-, eta barrez lehertu gara; izan ere, halaxe da.

Ederki pasatu dutela dio. Denetarako denbora izan dutela (hareago, denbora soberan izan dutela), harreman onak egin dituztela eta emaitza balekoa izan dela. Gehiago itxaroten zuela dio (ez dakit zer), baino grabaketa gelak ondo baino hobeto funtzionatu duela eta sentazioak onak direla. Ene ustez, zera gertatzen da: hainbeste espero duzu batzuetan, non, nahiz eta ederra izan egindakoa, ezinezkoa baita desira guztia betetzea. Ziur naiz sekulako soinua duela.

Taldeak errepertorioa bisekin amaitu du. Jon eta Ludmilarekin elkartu gara, baita ezagun gehiago aurkitu ere behin lokaleko argiak piztean. Txuari kaka zaharra iruditu zaio (bere hitzekin esateko). Guri, kontrara, zoragarria. Txua gutaz barreka dabil eta daramagun unibertsitateko gafapasta mugidaz; ulertze aldera. Beti txantxa bera. Bere ahoan egoki ematen du, grazia du kabroiak. Jon kexu da. Bere bizitza osoan ez duela inoiz ikasi eta arotza dela dio. Denek ezin dugula talegoan egondako punkrokerrak izateaz harro egon, baina horrela izanda ere ezin dela hain guaia izan; edo ezin dela hain makarra izan, zeren, nahiz eta tatuaiez josia egon, gogoratzen digu, delitu bat egotzi ziotela merkataritza dokumentu batzuk faltsifikatzeagatik eta iruzur egiteagatik; kontu aski unibertsitarioa, bestalde. Denok barre egin dugu. Taldeak festa Infernuan, gauez mozorroa aldatzen duen eta sekulako festak egoten diren erretegia, jarraitzea erabaki du. Guk aurrera jarraitzea, oraindik etxerako bidea aski urrun baitugu. Tabakoa erosi dugu biderako.

Lasai noa gidatzen, beti bezala, bi eskuak bolantean eta errepideari so. Berandu da eta euria ari du barra-barra. Orain bai, Liarsak bolumen ozenean entzuten dira. Ludmila erasoan

dator berriro sorkuntzaren gaiarekin (bere gogokoena) eta neu bakarrik, bere ustez, sartu naizen isiltasun intelektualaren jarrera leporatzen dit. Irtenbiderik gabeko bidea. Motiborik gabea. Amaierarik gabea. Haatik. Kokok arrazoia eman dio eta Jon isildu egin da. “Gutxienez, idatz dezakek”, esan didate koru baten antzera guztiek.

“Beti guri baino hobeto eman izan zaik, berdin ziok ongi edo gaizki egin. Egitea duk kontua, parte hartzea, olinpikoek esan moduan. Agian beste batzuentzako inspirazio-iturri izan haiteke. Hori bakarrik la ostia huke”. Jakintzat eman dute, idazle oso ona ez naizenez, gauzak ezin daitezkeela lehenengoan atera, beharrezkoa dela ikaste prozesu bat. Arrazoia ez zaie falta, nahiz nik berdin ez ikusi. “Ez haiz, edo ez hintzen, gitarrista ona eta hala ere hire estiloa gustatzen zaiguk. Eta gainera hor zegok hik egin bidea, inork kenduko ez diana”. Hor bai, hor ados nago. Guztiarekin ere lasai gidatzen jarraitzen dut. Ludek esan dit: “Horrela, horrela segi ezak deus esan gabe, artista. Heuk jakingo duk. Berak jakin nahi ez duena da nik egiten dudana ez dela inoiz artea izan; edo nik bederen ez dut sekula hala ikusi. Jolas hutsa, errepikatzen dut ‘aspertzeari guda’, hori bai. Sukaldatzea bezalatsu. Ez da zertan sukaldari sentitu behar ongi pasatzeko. Musika niretzat jaki jolasgarria da, postre gazi-gozoa edo pikantea, gezurra edo guarnizioa. Metodoric gabea, amateurra. Baina ‘ongi egindako gauzek’ beti eman didaten gozamenarekin. Ez da zertan maisua izan beharrik. Ez da sekula hala izan. Bilatzen dudak bakarra, zerbait bilatzekotan, nortasuna da. Baina ongi ezkututzen da, alu halakoa. Agian gene kontua da, eta beti hala izan da. Baina neuri bost. Zure ingurukoen onespeneren bilaketa txorua besterik ez delako, hots, bilaketa lotsagabea eta interesatua, bai eta hutsala eta umekoia. Besterik litzateke zure ‘artetik’ bizitzea. Baina izateari utziko zion. Honatx ikasgaia...

Edo ez da horrela? Azkenez, edertasun estetikoan pentsatu dut. Halaz guztiz, antza, ur horietan murgiltzeko beharrezkoak dira gafapasta betaurrekoak. Artea. Letrak. Hasieran pentsatzen nuen ez nuela teklatuaren gaira salto egiten uste nuelako istorio handi bat kontatzea beharrezkoa zelako; eta hartarako, bizitu beharra zegoela istorioa. Joder, Baroja irakurri ostean, duela ehun urte (edo ia) esaten baitzuen ez zirela kontatuak izatea merezi zuten gertakizunik gertatzen; eta ikusirik bati egokitu zaizkion garaiak eta nola ari den bizitzen, eginkizuna betetzeko bulkada ez da berdina (behera doa). Ondorioz arazoen errora zoaz orri zuriaren aurrean eserita edo bestela trena pasatzen uzten da jakinda batek ez duela bidaia hori gozatuko nahiz eta zoria gustugarria izan; ezinezkotzat utziz edo alferkeri hutsagatik. Bigarren aukera hau ez litzateke batere trago edanerraza, ahazten zaila. Trago txar horietako bat, non badakizun okerrera iristear dagoela eta, iristen denean, sufrimendua dakarrela. Badakizulako gaizki egiten ari zarela eta zure gorputzak erreakzionatu egiten du indartsu oroitaraziz zaplaztekoka. Eta era horretan erabaki dut istant batean (entzuten eta gidatzen) nire lokitik urruntzen diren bitartean orrorik egiten ez duten behien irudiak, gitarra apurtuak eta orri zuriak. Begiratzeko egunak joanak direla erabaki dut. Neure jendearekin bat nator, nahiz eta arras erraturik egon. Dena den, garrantzitsuena ez da hori. Benetan garrantzia duena elkarbanatzea da, akats hutsa bada ere banatutakoa; izan ere neroni ere oker nabilelako seguru aski, edo gutxienez, nahastua. Hori da (diot neure buruari), ez gelditu. Ez da beharrezkoa honi guztiari zentzurik ematea. Egin behar duzun bakarra, gogoratu behar duzun bakarra (beti egin duzun bezala) sentitzea da. Eta horrela, diot, neure buruari zin eginez (edo agian neure buruari iruzur eginaz, oraindik ikusteko dago) idazten hasiko naizela eta noraino iristeko gai naizen ikusi. Hala Bedi.

Berandu iritsi gara eta Jonen etxean gelditzea erabaki dugu denak. Elkarrizketa eguna ongi argitu arte luzatu da eta gosaltzera jaitsi gara. Ordu hauetan gazia nahiago nik, patata tortilla eta marianitora zuzenean; lagunek kafea hartu dute kontrara. Gaurko loari agur, antza. Hamaiketakoaren ondoren garagardo eta pintxo gehiago. Gero, sagardoa eta txuleta; eta konturatzerako kale erdian gaude, harroturik eta besarkaturik abesten siesta garaian. Gaua egunarekin elkartu duten lagun guztiak agertzen doaz taldea handituz eta zoria bulkatzea erabaki dugu bertan murgilduz lotsarik gabe. Irundik Txin eta Jojo datoz pintxatzera. Parranda bukatzeko plan ezin hobe eta, noski, ez dugu lorik egin. Oheratzean erlojua begiratu dut. Igandea da eta goizeko hamarrek eta erdiak dira. Jode, bi gaupasa, aspaldi ez genuen elkar topatu.

4.

Beste ostiral bat. Urtea aurrera doa. Ez naiz batere harritu ohartu naizenean begiak irekitzean ordularia begiratzeko pentsatzen nuen ordua zela. Duela aste pare batzuetatik hona gertatzen zait. Bioerritmoaren kontuak izango dira. Edo ez. Altxa eta maskuria hustu dut. Dutzatu eta kafea prestatu. Jantzi eta sukaldera gerturatu naiz. Hozkailua ireki eta bart gaueko afariaren wokeko hondarrak maletan sartu ditut. Ez du euria ari eta horrek bai harritu egin nauela; beraz oinez noa lanera. Kafea edaten bukatu, hortzak garbitu eta giltzak eta motxila hartu ditut. Atea eta egurrezko ate-ordea itxi eta oinez habiatu naiz Nick Draken zerbait abestuz. Eguzkia atera eta malenkoniatsu jarri naiz, harritzekoa.

Zubian geratu naiz erreka nola jaisten den ikusteko. Pixka bat aurrerago ahate piloa ikusi dut (hogeita hamarren bat) eta euren umeein igerian dabiltzala ikusi; metro pare bat gorago etxe eta espaloi artean gertatzen denari erreparatu gabe. Autobus geltokian geratu gabe zuzen noa Albariño kafe-tabernara, 60. hamarkadako kutsua duen tokia eta giro ona egoten dena goizetik. Kafea eskatu dut lehen etxean edan dudana ahaztuz eta gaur ez naizela baldar jaiki baieztatuz, nahiz eta asteburua joan den bezala joan. Eguratsak gogoan eragiten duela baieztatuz eta hargatik ohikotasuna (gaur apur bat hautsia) arinagoa bihurtzen da, maneiagarriago eta eramangarriagoa. Motxilak ere pisu gutxiago duela dirudi. Ahateen umek nire arrazoitzeko mekanismoak amatasunera zuzentzen ditu, amatasunetik Kokora, eta Kokotik

gure huts egindako esperientziara, baina muturrik okertu gabe, kasik pozezko oroitzapen batekin urte batzuk lehenago gertatua oroituz. BERE esperientzia esatea zuzenagoa izan arren; izan ere ni harrizko gonbidatua bainintzen. Elkarrekin ibili ginen ospitalez ospitale (publikoak lehenik, pribatuak ondoren) prozesua hasi zen puntura iristeko, abiapuntura, infinituari begira, estropada eremuari jakinda ez genuela sekula gehiago zeharkatuko. Prozesu honetan guztian emaitza pixka bat goxatu zuten uneak ere egon ziren eta, orain, balekoak bezala geratu dira etekin hobe ateratzen zaielarik egunen batean negar egin nahi bagenuen tiraderan gorde genituen beste batzuen aldean. Une gozo horietako bat haziaren lehen lagina eman behar nuenean izan zen..

GELA HAU ANDROLOGIA LABORATEGIKO PAZIENTEEK SOILIK ERABIL DEZAKETE. ARAUA BETETZEA ERREGUTZEN DUGU.

Lagina goizeko hamaiketan uzteko esan zidaten Bilboko Gurutzetan. “Isurketa ondotik ordubete duzu hondatu aurretik, beraz kabinan sartu beharko zara urruti bizi baitzara eta ez dizu denborarik emango”. “Arazorik ez” pentsatu nuen. Filmetan bezala. Azken belaunaldiko gailuak dituen gela batean sartzen amestu nintzen bere *Home Zinema*-rekin eta erizain eder batekin zeinak aukeran ematen dizun teknologia berri hori guztia edo mugida *old school*-agoa, mahai gainean irmoki erortzen diren aldizkariak larruzko sofekin... eta begia isten dizu maltzurki, larru zuriko bota altuak... gorantz hegan doan irudimen ahaltsua, alegia.

Egun jakinean giro urduritsua eta gainezka zegoen kontsultara iritsi nintzen, non erizain atsegin batek megafoniaz deituko zidatela jakin arazi zidan. Itxarongelan eroso jartzen saiatu nintzen; ezinezkoa. Jendez gainezka zegoen korridorera atera nintzen, ditxosozko kabinaren (zeina sorbalda mardula zuen gizontto baten pausaleku zen bi emagalduen kontuei barrezka ari zen bitartean, negozioaren aldekoak eta kontrakoak hizpide) atean letreroa ikusi nuen: “araua betetzea erregutzen dugu”. Komedia puntu bat gutxienez atzerritar ordezkaritza zabala duen lur eremu honetan, exotismoa dela eta (beti ongi teoria esaten dutenez) bere zera du. Gainera, ala espeziea hobetzen dugu, aniztasun genetikoa, koño. “Coño” hitzak bere zerak ditu, izan ere ospitalean bagina plus zakila bihurtzen da eta hitzok grazia asko dute, nahiz eta nor serio jartzen ahalegindu.

Han nengoela diot, pote hutsarekin jakan eta jende askoren artean. Jende asko eta bakoitza (edo bikotea segun eta kasua) BERE arazoekin. Jende haserretu asko uste baino denbora gehiago zeramatelako itxaron gela ñimiñoaren inguruan, kontsultetan, ekografoetan eta bip egiten duten makinetan. Erizainak hura guztia kasualitate gaiztoaren ondorio zela sinestarazi nahian, edo, kasu isolaturen batean, guztiz arrotz zitzaien faktoreen kasualitateari egotziz. Hori guztia egia zen eta gizalegez naturala. Baina eurak ez zeuden haserre. Non ote daude medikuak? Puntu honetan zortea izan nuen nire izena ozen entzun zelako bozgorailuetatik badaezpada eraman nuen liburuaren lehen orriak irakurtzen ari nintzela. Bukowskiren zerbait zela uste dut. Ez dut asko irakurri bera, baina irribarre gazi-pikanteak eragiten dizkit; Eta gogoratzen banaiz politikoki zuzena ez delako da halako toki batean; hain basa halako mundu aseptiko eta garbian.

Ni bakarrik, neure liburua eta nire erdi irribarrea ahoan. “Coño” kausa / kausalitate saindua; pauso irmoa jendez lepo dagoen korridore berean dagoen laborategiko ateraino, non erizain batek bere lan-protokoloaren gidoiaren arabera hartzen zaituen: Ahizpa Errutina. Ez, ez da moja bat, eszenaren kaltean. Zer ordutan izan da isurketa? Galdetu zidan betaurrekoen gainetik amona xaloak... (Lau buruk jiratu dute elkarrizketa jarraitzeko). “Begira- esan nuen umoretsu” kontua da Donostian bizi naizela eta esan zidaten hemen isuri behar nuela, kabinan”. “Lehenago etorri behar zinen hamaiketan puntuan emateko” erantzun zuen. “Ah, ez nuen ongi ulertuko” atera zitzaidan (lau buru aldi berean mugituz nire ezgaitasuna zigortuz). “Berdin dio, sar zaitez kabinan eta hamar minutu barru etorri”, ihardetsi zuen azkenez. Hamar. No te jode. “Ez ahaztu zehatz-mehatz jarraitzea argibideak” dio azkenez. Argibideak? Nork behar ditu argibideak? Ezetz, lasai (esan diot nire buruari), higiene kontua da.

Ados. Bost metrotara zegoen kabinara iristea zen kontua, gizonttoari eta andereñoiei baimena eskatu eta nire izena aipatu orduko bat-batean sortu zen lasaitasun inoportunoa gobernatzen zuen begiraden eta esamesengatik jarraitua izan. “Hau ez da edonor izango. Txanda gure muturren aurretik pasatu diguten atso zahar hauetako baten familiakoa. Kasualitateak izan nahi zuen nire kontu berberagatik hitzordua hartuta zuen pertsona bakarrak harrera gelan (kabina parean metro eta erdira) galdetzea ea non utzi behar zuen lagina. HAZIAREN LAGINA?, galdetu zion erizainak buruarekin baietz esaten zuen bitartean geroz eta txikiagoa egiten zen gaixoari (orain berrehun bat buru ziren kukuxunusuka eta konplizitatezko irriak jaurtitzen. Zerbait bada).

Nahasmaena baliatu nuen ateraino bidea ixten zidatenei barkamena eskatzeko. “Barka, sartu behar dut”. (“kanpaia jotzera

noa”, ez nuen esan). Adeitasunez paradisura zuzentzen zuen sarrera utzi zidaten. Harantz goaz.

Behin atea zeharkaturik (lehenbizi harridura, jarraian etsipena) errealitate gordinez horditua izan nintzen. Hau ez da Hollywood, botere kontserbatzaile zaharkituak hondamendira eramanez Bilbo Handiko ospitalea baizik. Ez telebistarik, ez aldizkaririk, ja, ez komikirik ezta argazkirik paretetan, ja, ja. Finean, komuna, konketa, komuneko papera, paperontzia besterik ez zegoen gela. Ja. Metro eta erdi karratu batean. Ja, ja Praxak jaitzi. Nire zakila eta ni kitzikapen estraren zain. Beltzera dena apustu eginaz, “beharbada Ahizpa Milagros hemendik igaroko da eta kontuari ukitu fetitxista emango dio... Ezetz, hau leku serioa da eta jendez josia”. Burua biratu eta ateak ez zuela hermetikoki ixten ohartu nintzen (hau esateko modu bat da) eta argi ikus nezakeen (uzten zuen zirrikitutik) jende andana korridorean. Posible ote zuten ni ikustea? Horrela ez dago arreta jartzetik. Hobe litzateke tabernara joatea, komun goxoagoak ditu. Eta hara joan ginen Zakil Jauna eta ni. Aurrera egin eta kanpora irten nintzen. Hamar minutu baino gehixeago eta bi errieta izan ziren, baina azkenean eduki-ontzi garden txikia, likido likits eta itsaskor preziatuz betea eman ahal izan nuen. Baina hau gertatu aurretik, apaingarri baterako beta egon zen istorio bukaera gisa. Jada tabernan, pozik lekua Carpantiar sabela baino hutsago zegoelako (eta behar bezalako komunak zeudelako) ekinean nintzela, zerbitzaria (hain profesionala bera) atea kolpatzen hasi zen gaizkile ye-ye, zera junkiea, nintzela pentsatu zuelako, denbora gehiegi neraman txis baterako, edo kaka egiteko kasu okerragoan (inozoa), eta justu momentu gorenean nengoenean, kabroi halakoa. Zeruari eskerrak Zakil Jaunak tu ederrekin erantzun zuen: “Zeu zeurera, neuk nahikoa dut-eta nirearekin”, eta ontziarekin atera nintzen eskuan ongi ikusteko moduan, aurpegi

asebetea eta belarri gortuekin pajarita dun zerbitzari baboak lepondoan esaten zidanari kasu egin gabe. “ Zenbat da kafea? Buf, zer goiza.

5.

Telefonoak jo du. Tirrinak bizidunen mundura nakar, non koño nintzen? Ah bai, nola diren gauzak! Hendaian gaude, hotel bateko tabernan drogarekin zerikusirik ez duen trapitxeo batean. Maletita eta antsietatea giroan. Niretzat ez beste, ez doa nirekin. Nahiz eta aukera errealak eduki legearen aurrean arazoekin bukatzeko, antza hau ez doa nirekin. Eta hala da, gutxi gorabehera. Lasaiegi nago. Nirekin den nire zaharra (nahiz egokiagoa litzatekeen esate ni naizela berarekin) izerdi urduriaz blai dago eta nire esanera txistosoek (Lubitsch estilora) ez diote batere graziaz egiten. Gure aurrean ditugun bi alemaniarrei ere ez. Lubitsch ukitua. Maisua. Beroien kalerako, azken buruan. Nik dagoen tentsioa baretu besterik ez nuen nahi eta egoera lasaitu, finean ez da hainbesterako. Ongi ateratzen bada, denak kontent, eta, ez bada... Gutxienez, saiatu gara. Gauza hauek ez doaz Fangiorekin (nire zaharra) eta horregatik laguntza eskatu dit. Gauza hauek diodanean zuzenak ez diren gauzez ari naiz, ilegalak direnak, kontatu ezin daitezkeenak. Kontua da badirela lehengaiak kantitate handian mahai azpitik saltzen dituztenak ere zergak saihestuz eta eragiketaren etekinak handituz. Arazorik ez duen eragiketa eta hargatik nago hain lasai. Industri mundua ez da gainerakoekiko hain desberdina. Alde bakarra mugitzen den diru kopuruan eta erabiltzen den arropan dago, bai eta erabiltzen den hizkeran, kodigoan. Hots, bakoitzak berea. Joder, maletita betea dago. Eta bi frankogermaniar hauek behin hontara ezkerro, hainbesteko antza dute auzoko trafikanteekin sar dezatela euren harrokeria kabitzen zaien lekutik, alu halakoak. Ni ez naiz

kikilduko, ohitua nago. Mesede bat egiten ari direla dirudi, no te jode. Baina nik maleta nola begirutzen duten ikus dezaket, eta begirada horiei larritasun kiratsa darie. Krisiaz hitz egiten dute. Biek. Niri bost. Krisi puta. Hemen dagoena negozioa da, aukera urritasunaren aurrean, bizitza osoko istorio puta. Eta denak pozik ondo ateratzen bada, lehen nioen gisan. Grazia egiten didate. Mercedes batean datoz, otarrainska eta jabugoko urdaia bezala, jakin nahiko nuke zenbatekoak diren euren soldatak, neurea mileuristarenaren marratik justu pasatzen denean, eta kexatzen naizenean horretarako eskubiderik ez dudana bakarra naizela dirudi. Ez dakidala aurrezten eta geratzen den apurra modaz kanpoko musikaren kalapita horretan xahutzen dudala dudana adinarekin, nahikoa dut, oraindik ama entzuten dut kontu puta berarekin behin eta berriz. Beste gitarra bat? Beti eman dit nagikeria halako galderak erantzutea ulertuko ez duenean erantzuna; ez baikara logikaz ari. Baina okerrena da guretzako, ni bezalako gizatxar batentzako, bizkarroiak ezer baino gehiago, dena eduki duen belaunaldi ustela (eta horrek potroak ditu) diruak berak, kantitate berdinak, guztiz bestelako balioa duela. Hau da, nik neure mila eta zerbaitekin ongi baloratua nago –futbolariak bezela-. Eta ordaindua, diote ustez, baina eurentzako kantitate hori barregarria da. Erlatibitate puta, eta hau ez da fisika. Batzuetan ikuspuntuetan adostasunik ezari dagokiola pentsatuz kontsolatzen naiz, gertu daudenak dimentsio zehatz batekin ikustea galarazten didan miopia, zorigaiztokoa ni. Benetan gertatzen dena da, nioen moduan, denak ez dugula balio bera, esanak esan. Beste guztia iruzur bat da, gezurra aurrera joan ahal izateko, zama arinagoa gerta dadin, nahi ez duguna onartzeko, defentsa mekanismo baten antzekoa.

Telefonia jotzen ari dela nioen. Koko da eta bildutakoei barkamenak eskatu dizkiet, altxa eta barrara noa. Oso urduri dago.

Okenek eskumuturra apurtu du eta ezin dezake bere gitarra madarikatua jo. “dakizun moduan, esaten dit, disko aurkeztuko dugu bi astetan eta hau sekulako putada da”. Halaxe da eta badakit, egiazki.

- Ordu erdi barru deituko dinat- moztu diot miramendurik gabe eta “mesede handia” entzun denean. Badakit zer eskatuko didan, badakit zenbat kostako zaidan eta badakit ezetz esatea ezinezko egingo zaidala, guztiarekin ere.

Mahaira itzuli eta barkamena eskatu dut berriz ere. Hau guztia lehenbailehen bukatzea espero dut, jode. Eta hala da. Ordaindu, eskua eman eta joateko prest gaudenean maletina eskatu diot anaiarena zelako eta Alemanian bukatzerik ez dudalako nahi, ez zait barrabiletatik irteten.

-Nahi duzuen egin baina maletina nirea da eta ez zen akordioaren bornean sartzen. Hemen bertan itxarongo zaituztet. “Aita (zaharrari zuzendu naiz) nahi baduzu autoa pizten joan”. Badakit barrutik barrez dela.

-Pergooooo...

- Ez da nire arazoa. Maletita nirea da eta listo. Bat edo beste eros dezakezue duzuen diruarekin- amaitu dut irmoki.

Itxaroten nagoen bitartean anaia dut gogoan. “Zaharra” hitza ez zuen gogoko. Gurasoak horrela deitzea gorroto zuen. Ez zuen inoiz zentzu gaitzesgarririk ez zuela ulertu. Nire zahartxoak dira. Oraindik ere badira.

Autora sartzean arindurik topatu dut Fangio. Atzeko eserlekuan utzi maletina eta leihotik ikusten ditut alemanak,

gustura dirudite egindako eragiketarekin. Denok kontent. Inoiz erabili ez nuen maletina.

-Dena ongi amaitu da. Mila esker mesedearengatik, seme.

-Ez horregatik, zaharra-. Neu ari naiz barrutik barrez orain.

Muga pasatu, eta Kokorekin izandako solasaz oroitu naiz.

Telefonoz hots egin, eta Okene ere egongo den bilera antolatu dugu.

Esku erdia eta hasta la mitad del antebrazo igeltsuarekin dator. Bilera laburra suertatu da, bi garagardo edaten irauten duguna. Euren taldekideekin hitz egin dute, nire izena atera da, eta hemen gaude. Erraz esan dut baietz eta Okenek dio bi hilabeteetan jotzeko prest egongo dela. Arazorik ez. Noiz hasiko gara? Bihar bertan.

6.

Okene Trintxerpekoa da, eta harro dago. Harrotasunez, gainera. Lanbide asko izan ditu: itsasoan lan egin du Iparraldeko kontserba lantegi batean, Hernaniko fundizioan, pipa izan da eta Europatik ibili da talde atzeritarrekin. Orain iturgina da. Baliabide askoko mutila. Lan egin zuen itsasontzia erakutsi zidan (*La Guillermina*). Arrainontzi berde ederra, egurrezkoa. Duela pare bat uda badiatik txalupan gindoazela han zegoen ainguratua bere azken hatsa ematen desguazatua izan aurretik antxoaren nibelak ikertzen (ea ontzen zen edo ez) ari zen zientifiko bati eta honekin zeuden bi ikasleei babeska emanez. Hala jarraituko dute, baina beste itsasontzi batean. Kapitaina aurkeztu zidan, erretreta hartzera zioan lehengo garaietako pertsona. Bien artean azaldu zidaten gutxi gorabehera lanaren nondik norakoak. Nazka aurpegiz begiratzen zieten biek ala biek arrainontzian zeuden burges arrotzei, euren notak hartzeko koadernoekin, ikasketan aplikatuak, alboetatik paseaz ezusteko bisitagatik ernegatuak. Garagardoak hartu genituen kubiartan eta hainbat pasarte gogoratu zituzten. Frantsesekin edukiriko liskarrak bolanten aferan. Liskar haiek amaiera txarra izan zezaketen abordaiak eta lapurretak izan ziren. Antxoa denboraldia, hegaluzearena, Azoreetan arrantza. Finean hizketaldi gustagarria. Ordutik saiatu izan nahiz zerbait hartzeko geratzen, grabagailua martxan jarri eta solasak historiak atera ditzan euren bizipenetatik. Agurtu eta botera jaitsi ginela gogoan dut, eta irlara joan ginela garagardo gehiago edatera eta arraunean genbiltzan bitartean Okenek ez zuen deus esan, eta ez zion “*La Guillermina*” begiratzeari utzi.

Eta oroitu dut pentsatu nuela izaera modu hori gustuko nuela: indarra ahotik joaten ez zaionarena. Ez dakit ikusi zuen azken aldia izan zen. Okene itsasora itzuliko dela pentsatzea atsegin dut, itsasoak ez baitio inoiz joaten utzi. Gitarrak bezala.

Etxera afaltzera gonbidatu dut eta nahi duena gonbida dezala. Oraindik ez dakit zer prestatu, eta nahiz eta hau plater tradizionalekoa izan (bakailaoa pil-pilean joder!) gustua ohitu beharko du gaurkoan beste zapore batzuei. Ardoa geratzen zaidan begiratu dut. Zortea dut eta Amadeus bat agertu da, David de Jorgeren web orriaren bidez ezagutu nuen. Ahoberoa.

Okene antzezlea da. Berak sumatzen du, baina ez daki ehundik ehunean. Eszena menderatzen du, oholtza da berea. Bi hilabete igarotzen badira bertara igo gabe biziki gaizki pasatzen du, berea falta du, bere haize-ahokada, izateko arrazoia. Inguruko abeslarik onena da niretzako. Ez da teknikoa, ez da beharrik ere. Heterodoxia hutsa, hobe esan. Baina berea ongi egiten du, eta horixe da kontua. Gitarrista moduan hala moduzkoa da, baina balekoa. Orkestra honetan (berari esatea gustatzen zaion eran) tiruriaz arduratzen den beste gitarra dagoenez, dena errazagoa suertatzen da eta ikusleen aurpegira begiratzeari jardungo dut, izenak jartzera, antzekotasun arrazoizkoak bilatzera bonbo kolpeez eta gehiegizko zalapartarekin horditzen naizen bitartean. Horixe dauka erabat axolagabe sentitzeak dakarrena gertakizunen emaitzagatik zeinahi kioskoren jirabiran. Taldekideei ez zaie gauza bera gertatzen. Okene bera urduri dago eta oraindik egunak falta dira. Koko oso urduri dago. Ez dut gustuko horrela ikustea. Xantal eta Galder (gitarra eta bateria) lasai eta konfiantzaz, (kuadrila honetako pultsua) emozionatzen utzi dira. Bikote dira, oso ondo ezagutzen ditut urte askotatik hona... Ongi pasatuko dudala uste dut, zer erraza naizen.

7.

Nire gitarra jaso dut, asebetea. Ongi prestaturik goaz, noa. Aski prestaturik. Entseguak zuzenak izan dira, onak. Denbora izan dut aurrera gindoazen neurrian probatu ahal izateko: gitarra hau, beste hori, anplia, beste hura, aurretikoak, efektuak. Denbora gehiago izan banu hobe, baina ados naiz izandakoarekin. Hauek badakite jotzen, oso ongi gainera. Horrela atsegina da, hazi egiten zara eta zarena baino hobe zarela uste duzu. Konfiantzaz betea eta alai, honen guztiaren muinean dagoen funtsa honetan datza. Batez ere oraingo honetan, nire kasuan. Aspaldiko ezagunak izaki, ez dugu egokitzeke arazorik eduki garagardo eta garagardo artean, kortxea eta kortxea artean, txantxa eta barre askoren artean; emozioa eta kasik aspalditik galduak nituen sentsazioekin enkontrua berriro. Nolakoak garen. Jada oso jende desberdinarekin joa naiz. Asko ikasi dut, nahiz gero ez luzitu asko. Baina gaur, momentu honetan, egindako lan guztiak distira ateratzen du: esperientzia, une oro, leku oro, zerbait egin duzun jende hori guztia. Gitarra bere maletan sartu eta zerbait esan diot (hain delikatua bera) ongi portatu haiz edo horrelako zerbait eta ozen. Nire baitan hain bildua nago, batzuetan bakarrik ez nagoela ahaztu egiten zaidala. Koko barrez dago. Gainerakoak ere. Garagardo lata gehiago ireki ditugu eta gailuak jasotzen amaitzen ditugun bitartean edan dugu. Gailu bakoitza dagokion lekuan, bere funfan, bere maleta estuan. Ongi ezagutzen dugun errituala, kasik mekanikoa, zentimetrora neurtua furgoian zehatz-mehatz sartu behar direlako. “Furgatorioa” gaztetako lagunek esaten duten moduan. Kableak, pedalak, puak, sokak, tornak, aliketak eta

guraizeak, errepostuak. Elikagailuak. Bakoitza bere maletara. Norbaitek porro bat bildu du, zergatik ez? Taldea motibatua dago, pixka bat urduri eta horrek grazia asko egiten dit. Ez nuen uste, hauek asaldatzen ez diren horietakoak zirela uste nuen, edo barrutik pairatzen dutenak, hunkitzen ez direnetakoak, honen guztiaren sorreran zegoen kimera ahaztu dutenak agian eta Diru Jaunak eremu batera eraman zituela alkohola emateko begirada lotsagabeetatik urrun bereganatzeko. Baina oso erratua nengoen, eskerrak. Giroa ezin hobe da. Horrelako giroarekin edozer gauzak merezi du. Ordaindu egingo nuke honegatik, zer pasiozko zoraldia, laguntasunezkoa, horditu nau eta neure jabe egin da, neure barnean banekien. Pospolo piztu berria naiz. Tiraderan zegoen pospoloa, pixka bat hezea, zalantza egin zitekeenaz, apurtu da? Argia egingo du? Azkena da? Eta gisa horretan nago, erretzen etxera daraman bidea argitzen dudala, neure lekura, edozeinen eskutik neure pausoa irmoa delako, bidea ezagutzen dut. Ondo sentitzen naiz: badakit hau ez dela neure musika, ez eta neure mugida ere, baina garrantzitsuena da zerbait piztu dela neure barruan. Berriro. Oroitzapenak lokalaren ataritik agertu dira, malenkonia ekarriko didatela meatsu egien dute, baina atearekin muturretan eman diet. Ez da ahultzeko unea, indartsua sentitzen naiz ere, gaur soilik ilusionatzeko lekua dago. Zer amets gozoa.

Gailuak jasotzen bukatu dugu eta ordenatuak utzi ditugu, prest ostiralean zamatzeko. Kontzertua Madriden da.

Tren geltokira noa. Hotza egiten du. Ordu eta laurden dut. Sentsazioak idatzi ditut, egun batean ez dakit zertarako erabiliko ditudan notak hartu. Bertso batzuk otu zaizkit papereratzen ez ditudanak. Batzuetan ideiak hiltzen ikustea gustuko dut, lotsa hutsez abortatzea eta arnasa lasai hartu, ez daitezela gizon gogor

horiek ohartu, nire izaera falta. Egun batean neure burua mendekatuko dut. Zakur kaka lurrean, bertsoak buruan. Beharbada hola ikusita balekoa da. Sentsibiltate kontua da, zentzuena, eta nola ez ditugun berdin garatzen, ingurua eta honen aldaketak ez ditugu era berean jasotzen. Horrexegatik batzuek ez dituzte gauza sentiberak jasaten eta mendi gogorrenera jotzen dute, edo alderantziz. Ur-tanta bat putzu batean egoki anplifikatua, egurrezko oholza batean takoi kolpea bezala, tinpanoak eta beirak apur ditzake, imajina daitekeen zaratarik ikaragarriena izan daiteke. Atalasea, minimo horretatik hara efektu jakina traje eta gorbataz azaltzen da, ez da berdina guztientzat. Eskerrak.

Inor ez nasan. Itxoiten jarraitzen dut. Berrogeita bost minutuan ohean naiz, gaur afariaz paso. Hautsia nago.

8.

Goiz esnatu naiz. Kafea prestatu dut. Gutunak ikuskatu ditut. Sukaldea garbitu. Garbigailua ez dabil. Kaka. Komunera hurbildu naiz. Bonbilla erre da. Joder. Burua dutxa azpiko ur epeletan sartu dut. Xaboia bukatu egin da. Grrrrrrrrrr. Lehortu eta jantzi egin naiz. Ez zait niki garbirik geratzen. atorraraz tira dut. Azken kafea edan dut etxetik irten aurretik. Autoan sartu naiz. Ez da pizten. Autobusa hartu beharko dut eta norbaitekin geratu gailuen bila joateko, eguerdiko ordu bietan aterako gara. Lanera iritsi eta nagusiak aurpegiera tristeaz agurtu nau. Kontua da urte sasoi honetarako iazkoarekin alderatuz heren bat gutxiago fakturatu dugula eta langileak gutxitu behar dira. Lanik gabe geratu naiz. Aurpegi tristea? Goiz nazkagarria! Ohean geratu behar nintzen.

9.

Asteburuan bildutako oharren aurrean nago. Denetarako denbora egon den asteburu intentsoa. Onena, estreinaldia, indar handikoa eta orekatua, amestua baino hobea. Okerrena, Kokok izandako iragan famatuak ekarriko duena, badakizu, iraganari ihes egitea ez da kontu makala. Usain ederra dago, lapikoa sutan, zigarro bat hautsontzian eta isiltasuna. Zein garestia den isiltasuna. Xabierrek dio petrolioa baino garestiagoa dela. edonora zoazela kolore guztietako dezibelioak. Ez du arrazoirik falta. Neure entzumena zanpatuta dago gaur. Zarata gustuko dudala pentsatu dut, dagokionean. Ez dakit noiz arte. Argazki zaharrak daude mahai gainean.

Tripak nahasiak ditut oraindik. Enkontru gazi-gozoa izan dut lagun zahar batekin. Iragan asteburu honetan izan behar. Lasai aldendu garela dirudi, oroitzapen gehiegi, batzuk aski ederrak, baina bat bereziki txarra. Amaiera txarra. Furgoi madarikatuak. Errepide madarikatua. Geroztik bidaiatzeari beldur diot. Beldurra. Nahiz horrek ez eragotzi bidaiatzera, adorea izan behar. Gainditu nuen, baina oraindik min egiten du eta horrek ere gatz gehitu dio tripa nahasien saldari, nitaz barrezka sutan dagoen usain oneko salda bera. Kontua da gaia ezin izan genuela saihestu eta, nahiz eta zama arindu, urteetan psikiatren bazka izango zen fardoa lurrean utzi eta bizitzaren gauzengatik negar egin (hala, orokorrean eta hotz-hotzean), nori zapore mikatza geratzen zaio egun batzuetarako.

Afari-lege arin batekin aldatzera noan zaporea, ez nago energia gastu handietarako. Zopa hartu dut, barazki gutxi batzuekin eta arroz fideoekin. Katiluan soja ari bat irauli dut. Isiltasunak eskutik helduta beste nonbaitera narama eta zaporeekin memoria zaileko konfetia sortu du. Alde batetik presentziak eta kalamitateak borrokatzen dira, esfortzu adoretzuan ahots-goraz aspaldi galdutako kokaguneak babestuz haize-boladaka, semen bulkada bezala.

Porrota garesti saltzea soilik geratzen da, baina ez da hori ere. Erraldoi bat bezala ikusten ditut desagertzen, kasik irrigarriak (nahiz eta iragan denborak gogoan) zirenen itzala ere ez dira, beste aldetik, zorioneko hondartza batean nagoela dirudi, hobe litzateke urakan ia amaituetan denbora galdu gabe aprobetxatzea. Baina batek ez daki egiten. Batek nahiago du kokteleran dena sartu eta irentsi azken ondorio gisa korroskada eder bat boteaz.

Asebeteta geratu naiz, eta behin eta berriz miazkatu naiz biltzen eta garbitzen noan bitartean. Beste zapore bat dut orain. Lapikoaren soberakinak kendu ditut, hezurak eta abarrak zakarretara bota, eta gainerakoa tapaki ona duen eltzera pasatu dut, hozkailuan sartzeko behin hoztutakoan.

Begiak itxi ditut. Kearen zaporea hortz artean sartzen da. SGAEk ez dio tunari dirurik kenduko kalean jotzen duenean. Borroka Grekoerromatarraren Aldeko Trobadoreek erantzunak eskatuko dituzte. Ni: txistea dirudi. Bera: Txistea da. Hurrengo mugimendua zaldia ateratzea da, peoien aurrean jarri eta paparra ateratzea, ongi doakizu jendearekiko tratua. Ni: zuk manipulatu egiten dituzu, gaiztoa, itsusia, zure burua ere manipulatu egiten duzu. Bera: nik ez badut egiten besteren batek egingo du. Ni: ez dakit zer egiten dudan zurekin hitz egiten.

Pentsatzea nekoso suertatu zait.

Zorro beltza begiratzen dut. Zabalik kordak nirekin
konektatu nahian gau ona opa didate.

Aulki honetatik jaitsi eta ohean etzan naiz. Aurretik argazki
hauek gordeko ditut. Atsedena behar dut.

10.

Gau batzuk igaro dira beren egunekin. Bitartean bizitza aurrera doa, naiz lanik gabe egon. Neguaren ateetan, okrea hurrengo urtera arte agurtu da. Fresko egiten du urte sasoi honetan eta muzin egiten diot manta eta gitarren artean, eltze eta liburuekin eta haranetik ematen ditudan osteratxo txikiekin. Ostegunetik igandera, kontrara, eszenatokiak eta bizitza sozial mugitua. Musika ez dut lantzat hartu nahi, nahiz eta egun neure diru-sarrera bakarra izan. Diru-sarrera ona, neure usteen kontra; nahiz eta orain arte ongi doan. Neure bizitzak horregatik guztiagatik pendulu bat dirudi. Asko erretzen dut.

Tokatan:

Era una de esas noches cerradas.
Ideal para lo que tenía que hacer.
Me sudaban las manos, me hervía la sangre
y conducía a toda velocidad.
Yo, que apenas sé conducir.
Vi el lucero de la Torre de Santa Fe,
donde aún viven mis suegros,
y lancé una loca carcajada al destino,
tan cercano que podía olerlo.
Aparqué el coche en el camino
y entré en la Taberna de Lola,
pegadita a la Ermita,
junto a la Armería de Don Clemen.
Hacía frío. Enseguida la reconocí.

Yo, que nunca había estado allí.

- ¿La señora es cazadora?.

- Es Vd. muy perspicaz,
dije apoyando el rifle contra la barra.

- ¿Qué va a ser?

- Orujo. Seco.

Lo bebí de trago, sintiendo el calor, el valor.

Le disparé en la puta cara, en el pecho y en el coño,
ése que arruinó mi vida.

Y sí, sentí placer, tanto da el porqué.

El templado tacto del gatillo... mi dedo frío.

Y esto fue lo que ocurrió, Sr. Juez,
juzgue Vd.

Argi indartsu batek esnatu dit amesgaizto sakonetik begi astunekin, mingain idortuarekin, ikaragarritzko egarriarekin eta gehiegizko tristeziarekin. Kantauri itsasoan dagoen baina erresaka handiagoarekin.

- Baina nor koño zara?-, entzun dut altxatzen ari nintzen bitartean.

Lehen eszenak argitu beharrean oraindik gehiago nahasi nau. Nahasmena handituz doa, begi bat keinuka, itxia hobe esan, karameluarekin itsatsia bezala. Bisaia minaren eta gaixotasunaren artean dago, norbaitek bolumenaren botoia minimora jaits dezala mesedez.

Zorabiatu rik mutila bat fregonarekin ikusi dut. Espazio handi batean nago, koltxoi bate gon beharko litzatekeen lur gogorraren azpian.

- Ea nor zaren galdetu dizut-, errepikatu dit, mehatxatzaile. - Poliziari deitu diot.

- Sinple alaena-, madarikatu dut.

Kontzertuaren ondoren, ateak itxirik jada, edaten aritu nintzela oroitu dut, eta komunera joan izanaz oroitu. Komunean esnatu izana gogoan dut eta orain nagoen tokira ozta-ozta heldu izana (ilunpean eta itsumustuan) nire kideen eta gainerako sateliteen hildakoetan oroituz; hemen barruan ahaztu nauten aluak. Kabroiak. Ez dit utzi. Bere oinetara oka egin eta ezin diot azkenik barreari eutsi. Ez dakit txorimaloaz ala nitaz barre egiten ari naizen. Berari ez dio hainbesteko grazia egin.

Egoera azaltzea lortu dut (bi zakur abegikor dira) eta kabroi hauen bila irten naiz, txilibitudunek esan didatenaren arabera, (posible ote da hau guztia?) plazan ari dira bereak eta bi egiten, eta dagoeneko eguerdiko ordu biak dira. “Ea hemendik joaten zareten” entzun izana uste dut, eta nola gehiegizkoa iruditzen zaidan, gosaldut gabe nagoela eta pixka bat ahul, urrutiratzea erabaki dut azken begirada bota gabe eta txintik esan gabe, bikoteak iritziz eta jarreraz alda ez dezan.

Gauzak hala, lagunak dauden lekura iritsi naiz eta, festan jarraitzen dutela ikustean (goraino eta aski lasai, rejua, eta batere liskarti), hotelerantz joan naiz bagajearen bila eta ordu batzuk lehenago atsedean hartzera joan diren zentzudunen bila, gidaria bertan aurkitzen da eta horrek bare eta trankil utzi dit. Izan ere, gaur laurehun kilometro inguru egin behar ditugu. Kaka egiten ari naiz.

11.

Lineako autobus batean bi haur etxera doaz bazkaltzera. Gero autobus berbera kontrako zuzenbidean hartuko dute. Eta beste behin lehenengo bidaia egingo dute etxera itzultzeko solfeoko klasearen ondoren. Bietako bati oparia irudituko zaio andereinok klasea bukatutzat ematen duenean eta arnasa lasai hartuko du ikasmahaitik arin altxatzen den bitartean. Anaia ukabiletik tira eta estasiaturik diharduen eserlekutik altxatzeko desioari eutsi behar dio. Egunero. Ezin du ulertu pentagrama guzti horien atzean ikusten duena, klabeak, nota bakoitza irudikatzen duen marrazkia eta eguna izorratzeko kolpeka diharduen diapasoia. Ziur da anaiak ez duela ulertzen. Baina nola ulertuko du ba? Ea, zenbat da heren bat gehi bosten bat? Eta bera pentsatuz: eta emakume honek zer dio? Lauko taula ikasi berri dugu eta... Nebari begiratu, eta, begiradaz, hark esan dio ez duela erantzunik, ez eta jakiteko asmorik ere, eta pozik dagoela galdera berari egin ez diotelako. Ez al haiz ohartzen hik matematikak ez dituala gustuko eta honek beste ezertaz ez duela hitz egiten? Baina beste honetaz ziur da: musikaren magiak anaia liluraturik duela. Ongi harrapatua eta horrexegatik denbora galtze horrek ez diola enbarazurik egiten. Jakin ere badaki, askaldu ostean, pilotarekin jolastera jaitsiko direla auzora, garajeko paretaren kontra penalti batzuk bota eta une hartan paperak trukatu eta bestea izango dela pilotaren atzean zer dagoen ulertuko ez duena, irudimenezko ate horren atzean dagoena ulertuko ez duena eta “ea nork sartzen dituen gol gehiago?” galderaren atzean zer dagoen ulertuko ez duena. Ondo pentsatuz gero, suposatzen da adin

horretako umeeek baloiarekin jokatzek jakin behar dutela, ahal izanez gero ongi gainera ikaskideek besarka zaitzaten ondoko klasea ikastetxeko urteko lehiaketatik kanporatzean. Horrexegatik, beharbada, bat lekuko erregea da eta, bestea, lekuko erregearen anaia.

Bi ur tanta bezalakoak dira. Eta hain ezberdinak. Ez dute pentsatzen ea elkar maitatzen diren, zerua hor goian guzia estaltzen duela bezain argi dago. Batzuetan manta bat jartzen du gainean eguna zailduz, euri errekek jausiz eta indar handiko haizea putz eginez. Baina eguzkia ateratzen bada jolasa usaintzen da. Dena galderez eta baldintzez betea dago. Zer gertatuko litzateke...? Horregatik amesten dute. Soilik umeeek dakiten eran amesten dute. Eta zortea dute bata bestea dutelako. Gauetan loak hartu aurretik ipuinak asmatzen dituzte eta beti horrela agurtzen dira “listo esan dezala loa hartzen duenak lehendabizi”.

Hau guztia burura datorkit nire anaia itxaroten dudan bitartean, berandu dator, beti bezala. Bere aitaginarrebaren elizkizunera joateko geratu gara. Lagun on bat. Fundizio batean egin zuen lan bizi osoa, erretreta hartu eta gozatu egin zuen. Ez zion batere grazia egin nire anaiak bere alaba hegoaldera eramanez izana, baina bere ilobak ikusi zituenean adurra dariola geratu zen. Ordutik, hiru astetik behin ikustera jaisten zen eta hiru lau egun egoten zen eurekin eta handik partitzeak tristetzen zuen. Diru zerbait aurreztua zuen (baita errenta ederra ere) eta denbora asko aurretik; naiz azken hau ez hainbestekoa suertatu.

Neuri ere ez zidan graziarik egin anaiak banatu behar izateak.

- Oraindik baduk aterki hori?-, sorbalda atzetik entzun dut. Neure bikia ikusi dut itxura ederrarekin (aurpegiera tristea baina planta ederrekoa) naiz gauden egoeran egon, eta badakit zer

diodan bai baitakit bere barruan pinpirina dela eta uste dut animoak eta arreta behar dituela

- Eta hire maletina ere badiat). Har ezak.

Gure denbora hartzen dugu besarkatu aurretik. Neurrira eginak gaudela esan liteke.

- Galdua nuela uste nian.

- Nire telefonoa galdu duk. Aspaldi ez duala deitu, zakur halakoa.

- Zakurra hi. Goazemak zurito bat hartzera.

- Ez al duk berandu xamar?

- Normalean ez al duk “goizegi ez ote” esaten?

- Bada, bai.

- Gaur ez.

- Gaur ez al duk berandu?.

- Bai, gaur ez duk berandu. Jada, inoiz ez gaituk berandu iritsiko nire aitaginarrebarenera.

- Baina berandu iritsiko haiz hire emaztearengana.

- Hori beti.

- Zakur halakoa, esaten nian nik. Ez zekiat nola jasaten haugun. Noiz zetorrek?

- Aparkatzen zagok. Haurrak Jonekin utzi dizkiagu, bide batez sekulako bale itxura dik, eta hemen ondoan gelditu gaituk. Hirekin goaz kanposantura, hire autoan esan nahi diat, ongi baderitzok.

- Nire autoa ez duk pizten, uste nian esan niala telefonoz.
- Joder, arrazoia duk.

Eta izkinatik koinata datorrela ikusi dut, pixka bat arduratua eta arnasa beharrez. Lore sorta darama. Besarkatu gara. Beste besarkada luzea (kasik azkenekoa adina).

- Sentitzen dinat hire aitarena.
- Bazekiat.
- Zer moduz musika?.
- *Va bene*, ezin nauk kexatu, gero kontatuko dizuet. Non utzi duzue aparkatuta autoa?
- Hemen ondoan, kasualitateak zaharraren etxe ondoan aparkatzea nahi izan din, zergatik? Ez ahal gindoazen hire autoan?.
- Ez zebilek...(neure anaiari so egin eta ohartu naiz oraindik ere ez zaiola zaharrei halako moduz deitzea gustatzen, baina ez dio ezer).
- Auto hori... Zergatik ez duk aldatzen behingoz?
- Ezta kromoa balitz ere! Oraindik bazebilek, soilik alternadorea aldatu behar zaiok, besterik ez—, alternadorea zer den ideia zipitzik jakin gabe esan dut.
- Eta aterkia ere eros ezak—, esan du anaiak bide batez. Aizak, eta gure zurittoa?
- Ahaztu ezak hori.

Ukondoetatik heldu (bakoitza alde batean) eta kalean beheragaramatza. Oinez goaz jendea saihestuz neure aterkipean, eta Leoren portaletik igaro garenean neure koinata ikusi dut behe-betazalean nabari duen negar-malkoak estoikoki eutsiz. Besoa estutu diot instintiboki, instant horretan buruan zer irudi duen asmatu nahian. Nik dudana pasatu nahiko nioke. Bere aita zoragarria zen. Autoan sartu, eta hilerrira joan gara. Ez dugu denbora asko.

- Kokok muxu handi bat bidaltzen dizue. Joan den asteburuan Zaragozan jo ondoren, bertan gelditu da egun batzuk, eta horregatik ez da etorri-, esan dut, minutu batzuk leihotik begira tontotuta pasatu ondoren. A zer euri zaparrada!

- Zer moduz dago?-, galdetu dute biak batera.

- Oso ongi. Bere saltsan, badakizue. Eta oso eder. Gero eta maiteminduago nago-, amaigabeak diruditen segundo batzuk pasatu dira, eta pilotuak eta kopilotuak aspaldidanik dakitena (eta orain entzun berri dutena) besterik gabe hartu dute. Denek dakiten sekretu horietakoa da, baina inoiz ez da hitzetara ekarri, hori da kontua. -Kontzertuak horren ongi eramatearen arrazoia dela uste dut. Gainera, Okenek soilik abestu nahi du eta ni arduratzea bere gitarrez eta zer nahi duzue esatea... Atsegin handiz egingo nukeela esan diet. Azkenaldian Kokorekin egiten dut amets, zer mugida. Esna esan nahi dut.

- Beti amesten duk berarekin-, esan du nebak. -Hireak egin dik...

- Hori ez duk horrela. Ez bata, ez bestea-, eta erantzunak biak harritu ditu... Hirurak. Sentipen hori menderatzen saiatzen nabil, lehen gertatu ez den ezer ez.

Orduan iritsi gara. Ni bigarren lerro diskretuan kokatu naiz. Edo hirugarrengoan.

Apaizak sermoiari ekin dio, edo dena delakoa. Ez diot txintik entzuten. Une asko pasatu ditut zurekin, Leo. Askok maitatu gaituzu. Nire anaia maite zenuen, oso gustuko zenuen, eta demasekoa iruditzen zitzaizun bikia zuela jakiteak. Erabat seguru zinen, (pentsatzen dut) prezio berean bi kopia errepikatu zenituela.

Operara eraman zenigun eta musika klasikoa entzuten irakatsi. Bilbon eta Madrilen, Arriagan eta Realean. *Figaroren ezkontzak*, *La Boheme*, *Sevillako bizargina*... Gauza handi eta sekulakoa, sentitzeko errazak gu bezalako ezjakinentzat, neuri gustagarri suertatu zitzaizkidan gauzak. *Facile, semplicissimo*, sorgintzen zigun Mauricio Lamaren abesti hura bezala. Hala ere, ez nire anaiari, eta zure alabak ere aspertua zirudien modu berdintsuan, nahiz eta berak ulertzen duen eta ederki laburtu dezakeen zergatik nahiago duen Puccini Rossini baino. Ziur bera gurekin zegoenean eta gu zurekin, ez zela hain eroso sentitzen, eta horrek bere zentzua du, aita, alaba, lagunak, maitaleak... Nire anaiak nahiago ditu Jazzeko zuloak (alkohola eta tabakoa) gure aitak bezala. Neuri hori ere gustatzen zait, nola ez, karta joko bereko aurpegi desberdinak direla uste dut, jolas beraren parte direla, esku desberdinekin. Sekula ezer ere falta izan ez zaion amaren begietako haur zorteduna izan naizela eta naiz, pentsatzen dut, puntu honetan ez da arrazoia ere. Ez nago harro, baina ez naiz lotsatzen ere, filmetan esaten duten gisan. Ez zu bezala, Leo. Edo gure zaharra bezala. Zuek borrokatu egin duzue. Zuei ez zizueten deus eman eta deus ez zenuten eduki gazte zineten artean. Kontua ez da merezi dugun ala ez, ez dut denbora galtzen galdera horiekin. Gauzak diren modukoak dira, baita geu ere, baita zure

oroitzapen hutsa ere, Leo. Nahiz eta zu, jada, sartua zaren fase horretan non aldarera igotzen hasia zaitugun, eta horretarako gure oroitzapenak distortsionatuko ditugu, ezaugarri batzuk ahaztuz, amets erakargarriagoak direnen mesedeetan. AMETSA. Oroitzen zenbat denbora eman zenuen ez genezan ahaztu? Zenbat saiatu zinen. Ni bai.

Apaizak hitz egiteari utzi dioenean koinataren anaiek eta osabek gorpua altxatu eta kaperatik atera dira. Kanpaien hotsak entzuten dira, ez naiz zi orientazioa galdua dut. Euri jasak gorpua daramatenengan duda piztu du, baina minutura (jainkoek tregua ttiki bat emango balute bezala) askoz ere euri gutxiago ari du eta aurrera jarraitzea erabaki da eta han bildu gaituen arrazoiarekin jarraitzea. Egia esan, klimak koadro ezin hobe marrazten du (konpasaz marraztua bezala) argazkiari entonazioa ederki egokituz.

Leo jaitsi, eta bi gizonak hilobiratu dute gorpua. Apaiza azken hitzak esaten ari da. Jendea Leoz agurtzen ari da eta nik neure txanda itxaron dut.

- Lore sorta bat ekarri dizut baina gogoko ez zenituela oroitu dut, aldamenekoari utziko dizkiot-, makurtu, eta harri hotzean utzi ditut loreak. -Nire errespetua agertzen dizut, Leo, horrela egiten dela uste dut.. Inoiz ez naiz zutaz ahaztuko. Nire anaiak zure alaba zainduko duela badakit, baina noizbait burua galtzen badu neu arduratuko naiz bizi naizen artean. Agur, Leo. Ez dakit hemendik itzuliko naizen. Oinez, esan nahi dut.

Irteeran elkartu gara. Trago bat hartu eta afaltzeko ordura arte agurtu. Badoaz bihar, lan kontuak. Nebak txuleta nahi du eta sagardotegira joango gara gu hirurak, Jon eta Ludmila eta gure erara agurtu ahal izango gara: sabela betea. Hiru aste barru bisitan joango naizela hitz eman diet.

12.

Hotel gela batean goizeko hirurak eta erdi dira eta ezin dut lo egin. Gaur Galderren zurrungak entzutea dagokit. Xantalek ahaideak ditu inguruotan eta eurekin geratu da, Galderren kexuei jaramonik egin gabe, eta Okenek argi du gaur ez duela hoteleko gelarik nahi, dirua botatzea litzatekeela, *ergo* hemen aurkitzen naiz. Bera seko erori da, sartu orduko ohean bota da eta behin etzanda zapatilak kendu ditu. Oraindik bakeroak ditu eta zoritxarrez, ahoz gora etzan da. Bere zurrungari nabarmenaren famaz jakitun naiz, beraz badakit zer datorkidan. Zigarroa bildu eta leihora hurbildu naiz. Oraindik jende asko ikusten da kalean, nabari da hiri handi batean gaudela. Beste garagardo bat ireki dut, bi trago luze hasteko. Galtzak kendu eta besaulki eroso batean eseri naiz. Bero egiten du hemen barruan. Eta hotz kanpoan. Ez dut gelakidea izorratu nahi, zarata gutxi egiten ahalegintzen naiz beraz. Beste bi trago. Zupada bat. Ekarri dudana liburua ireki dut marka duen orritik, 333 izatea egokitu da. Zupada luze eta atean bi kolpe, espero ez nituen bi tok-tok. Poliki irekitzen dut eta Koko da. Pixka bat balantzaka eta begi distiratsuekin, bata batekin jantzia, dezenteko harridura sortarazten didana bestalde.

- Hator-, esan dit. Ez dakit zergatik aukeratu dudana bakarkako logela. Ezin dut lo egin, eta ez dut bakarrik egon nahi.

- Seko mozkorra hago-, xuxurlatu diot, Galder ez esnatu asmoz.

- Hator-, errepikatu du.

- Itxaron. Prakak jantzi, eta giltza bila noa-. Emozioak harrapatuta nauka, zergatik uka. Korridorera irtetea, bi ate haratago sartzen ikusi dut, 208 zenbakian.

Barrura sartu naiz. Bi orduz egon garela hotelean kalkulatu dut gehi kontzertura joan aurretik egon garen ordu eta erdia. Zaila da dagoen ordenarik eza deskribatzea. Beti ikaragarritzko maleta darama; nahiz eta egun bakarrerako irten, gaur bezala. Nik, kontrara, kamiseta bat, galtzerdi pareta eta galtzontzilloak ekarri ditut soilik supermerkatuko poltsa batean bihar aldatzeko, eta hori guztia berokiaren eskuineko sakelara kabitzen zitzaidan. Soilik gau hau egin behar dugu etxetik kanpora! Bihar egingo dugun gauza bakarra furgoian sartu eta itzulerako bidaia da, gehienez ere jateko geratuko gara, dagoen umorearen arabera, zuzenean lotua dagoena bart gauean edan den alkohol kantitate eta gainerakoekin. Bihar ez dago estetikarako ardurarik. Halaz guztiz, lurrean barreiatuak gonak, galtzak, jertseak, topak eta mila konbinazioetarako aukera ematen duten arropak daude.

Bidea eginik bere ohera heldu naiz, etzanda aurkitzen da gerritik behera biluztua (txabutina altxatuta) eta buruz behera baina begiradarekin jarraitzen didala ilunpean. Alkohol usaina da gela osoan eta sexu usaina ere bai. Zer demontretan aritu haiz, pendeja?

- Hator-. dio berriz.

Eta banoa, noski noala. Horditua dago baina badaki zer nahi duen, egiten utziko diot. Gaur bere latexezko panpina izango naiz, gero armairuan sartuko duen jostailua. Pozik nago (hau egiten dugun guztietan bezala) beti baita fantasiak errealitateari gain hartzea (ez dakit zergatik ari natzaion honi izenik jartzen). Maitemintzen ari naiz, baina ez dut erlazio formalik nahi, Koko

ezin hobeto datorkit, beraz, larru jotze hauek hain noizbehinkakoak ez balira, hori baino gehiago balira.

Azkenean uste baino gehiago parte hartu dut eta neure protagonismo unea dut. Gaur ez dakit bera izan den nitaz aprobe txatu dena, ohi bezala, edo, alderantziz, ni izan naizen. Erre egin dugu eta begietara begiratu. Burukada batzuk ematen hasia dagoela ohartu naiz, eta hautsontzian zigarroa itzali eta ohetik altxatzen hasi naiz, lasai uzteko tenorea iritsi dela pentsatuz. Nora demontre noan galdetu dit. - Ez al duk nirekin lo egin nahi?, eta ahala biluzik eta besarkaturik lokartzea lortu dugu goizaldeko orduren batean.

Ate joka ari dira. Begiak ireki eta Koko ikusi dut larrugorritan atean hitz egiten. Bagoaz, bagoaz!

- Dutxatu, atezuan itxaroten zigutek.

- Kaka. Neure gelan dutxatuko naun. Behean ikusiko gaitun- eta ziztu bizian irten naiz galtzak eskuetan. Eta korridorean mandatu mutilarekin gurutzatu naiz. Ezin dut argitasunez pentsatu eta bihotza bortizki taupaka daukat, dutxan sartu eta hiru minutuz sosegatzea lortu dut ur beroaren azpian. Gose naiz. Espero dut beste norbaitek ere zerbait jateko gogoia edukitzea errepidean martxan jarri aurretik.

Ziztu bizian jantzi eta sarrerara jaitsi naiz. Xantal eta Galder egunkariak irakurtzen ari dira bata bestearen ondoan, ahal bezain bat gertuen. Okene gertu dabil azken ordura arteko utzitako elkarriketa bati galderak erantzuten (aurpegi ona du, zer profesional kabroia!) beraz zerbait jateko denbora dugu eta dirudienez hemen ondoan taberna egokia dugu mokadua hartzeko, eta ideia ona dela deritzogu izarrei tabernan itxarotea, ja. Bete-bete egin naiz. Okene dator. Egunkaria ikuskatu eta kafe

hutsarekin amaitu dut. Umore ona nabari da giroan (esan ohi den gisan), ados gaude kontzertua ongi atera dela (diruz ere) eta Arandan parada teknikoa egitea deliberatu dugu arkumea jateko. Barazki jaleek muturra okertzen dute baina nola ohituak dauden eta ongi heziak hasperen egin dute gure pleistozenoko keinu eta orroen aurrean. Koko da iristen azkena, nire alboan eseri eta kafea eta ogi txigortua eskatu du. Harritu egin nau furgoirra igotzean nire ondoan eseri delako. Nire sorbaldan burua paratu eta lo hartu du. Barrez ari dela uste dut. Lo hartu dut, ametsak bere bidea darrai.

Esnatzean lepoa kasik apurtua dut. Eguzkia bitxi ageri da lainoen artetik, ume bat lez nesken aldagelako leihotik eta furgoiaren abiadura mantsotzen nabari dut pixkanaka. Gose naiz berriro eta Aranda ondoan egon gaitezen otoitz egin dut. Hala da, irteera ezagutzen dut eta esnatuz nire ondora so egin dut Koko postura ezinezko batean ikusiz eta atsedena hartuz. Beste gauza bat izango da esnatzen denean. Nire lepoan pentsatu dut eta berea harrizkoa behar duela izan orain. Duda egin dut, ez dakit esnatu ala hurrengo motorraren zarataren etenak iratzargailu gisa balio dezan utzi; mundua hankaz gora. Camper Van Beethoven entzuten ari garela esan didate. Ez nituen ezagutzen, gustuko dut estilo ero hau. Gainerakoak esnatzen ari dira, Koko da azkena, beti bezala, eta nahiz eta besteak kexuan hasi, egin duen lehen gauza, beti bezala, zigarroa piztea da. Joder, kaosa bere ohiturekin eta ez iezazkiozu ken. Zer-nolako kontraesana, baina hobeto pentsatuz bere enkantuen parte da. Gainera, gaur, beharrezko balitz kartoi oso baten kea arnastuko nuke berak nahi duen tokitik eta besteak hor konpon.. gaur, esan nahi dut. En fin, denbora galdu gabe jantokira zuzendu gara, gauza bat dela edo bestea kasik ohartu gabe bainengoen jatetxearen aurrean ginela.

Ardo beltz ugari edan (pixa egitera geratu beharko dugu) eta ezin hobe iruditu zaidan arkumea eskatu dugu, ahoan desegiten den horietakoa, esaten den moduan. Aurretik odolkia eta txorizo erreak atera dizkigute, txerri festa ahoa goxatzen joateko. Barazkizaleek orburuak (itxura ederrekoak, bestalde) baba eta ilarrak eskatu dituzte nagusiki. Egin bidez topa egin dugu

Pentsatzen nuen hasieran soilik hiru edo lau kontzertuetarako nahi nindutela, baina pixka bat nahasi egin gara eta erabakia denon gustura luzatu dugu, edo hori dirudi behintzat. Data asko dituzte hitzartuak eta datorren urteko apirila arte ez dirudi geratzeko asmorik dutenik. Aprobetxatu beharra dago eta ni prest nago. Eta gero? Argi dut barreneko arra ez dela isilduko, beraz hainbat ideia prestatzen ari naiz. Bat bakarrik aurrera ateratzen bada bertan goxo. Hartara jarri behar dut azkar demonio. Ongi dago besteen musika jotzea, baina bati prozesu sortzailean parte hartzea gustatzen zaio hasieratik bukaerara, beharrezkoa bihurtzen ari zait, eta ustekabeko beroketa honen ondoren baldintza egokiak eman dira.

Zortzitan iritsi gara. Gau itxia eta hezea da. Asteburu honetan hirugarren aldiz furgoia hustu dugu. Kokori esan diot ea etxera etorri nahi duen zerbait arina jatera eta harritu egin nau (azken aldiz, gaur) baiezkoa erantzun didanean. Distira berezia nabari diot begietan eta konplizitateko irri berria sumatzen, gaurdaino bizi duguna, askotxo dagoeneko, baino haratago doana. Eta konbikzio horrekin bagoaz eta munduko gizonik zoriontsuena sentitzen naiz. Ume bat bezala.

Entsalada afaldu dugu. Letxuga nahikoa amets sakonetarako. Ez audioa, ez bideoa. Kokok bere postari begiratu eman ondoren Axik eta Josuk zerbitzaria behar dutela esan du. Gustuko dut euren taberna. Bihar hots egingo diet eta ea zortea

dugun. Kontzertuetatik ahal dudan gehiena aurrezten ari naiz badakidalako gaurko ogia biharko gosea dela. Egia da barra baten atzean lana egiteko gogo handirik ez dudala, baina egoera kontuan hartuta momenturako soluzio ona dela uste dut, aukera suertatzen bada. Musikarekin uztartzea espero dut, kontu aski zaila, eta gutxienez Chismerekin hitzartutako guztia bete ahal izatea.

13.

Rende-vous avec Josu eta Axi. Egun pare bat eman ditut hitzordua antolatzen, mila gauza buruan, nola aldatzen diren gauzak. Ez da guztiz gaizki joan, beste baldintza batzuetan balekoa litzatekeela uste dut, baina oraino ez da posible izan gaurtik aurrera behar baitute norbait. Denbora nire aurka doa, eta, garagardo batzuk edanez, hurrengorako utzi dugu, aukera hobe baten zain. Gainera, hiru hilabete pasatu beharko lirateke gutxienez astebururik libratu gabe. Beste zerbait bilatu beharko. Diruz uste baino larriago nabil espero ez nituen gastu estrak direla eta. Ostiraleko ekaitzak teilatu zati bat apurtu zuen (gaur dira aurrekontua pasatzekoak). Gainera, autoaren alternadorearena dut (hirurogei euroko bigarren eskuko ostia gehi BEZa) eta postrerako indargetzaileak (ehun eta berrogeita hamar euro), bateria bete eta argiak doitu. Bukatzeko: eskulanei ehun eta berrogi euro gehitu, joder, IAT madarikatua, leku guztietatik egurra besterik ez. Propanoa ere erosi behar dut eta gure sistema (birentzako) laurogei litroko bost botila dira; emaitza: beste ehun zartako. Etxe zahar batean bizi naiz: onena, alokairua (baxua da, ez da dena kaka zaharra izango), eta okerreana, saneamendua, jarraitua baita. Jode, aldagai gehiegi batzen direnean karguekin kontuan dardarka hasteko modukoa da. Gose naiz. Hozkailua hain hutsik ikustera ez naiz ohituko inoiz. Musikari eskerrak, mesede gisa hasi bazen, zerutik eroria bezala datorkit orain, gero txanpa luzatu eta azkenik taldeko partaide izan, Europatik bira egin arte

gutxienez. Ondotik, bi hilabeteko atsedenaldia hartuko dute eta ondoren ez dago argi zer egingo duten. Horregatik, zulotik irteteko edozertan ari naiz pentsatzen, nahiz eta zulo hau bizi osorako etxea bihurtu, ezin baitut datozen orduetan baino pentsatu, biharra ezinezkoa eta urruna egiten zaidalako eta nahikoa dut eguna pasatzearekin, eta datozen bi asteak bizitza osoa iruditzen zaizkit, aurrean argi puntuarekin hainbeste intseguritate eta ahultasun ekonomiko konpentsatzen dituen, eta orain nahi dudana guztia biltzen duena bere baitan. Baina orain ez dut argigune horretan pentsatzen, orain grisa jartzen ari naiz, eta nire jitea aldatzea erabaki dut egun osorako, ez dezagun izorratu oraindik ez da urperatu eta ontzia, gezurra dirudi garagardoak ergelei ematen digun indarra, eta Jonen bila noa pauso irmoz, oportretan dago, eta bere ahotsa entzuteak zenbat on egiten didan pentsatu dut, bere aholku baten premian nagoela ur-bizi hauetan aingurak botatzeko, edo beharbada soilik bere ahots tinbrea entzuteko premia da, run-run espiritual gisa. Gaur asteazkena da eta bihar ez dugu zereginik, neuk bederen, beraz diskoak jarriko ditugu, lata batzuk ireki, aurkitzen dugun guztia erreko dugu eta gero gerokoak. Luzatu behar badira luzatuko ditugu orduak, hozka egin behar bada, amets egiten ez dutenei hozka egingo diegu lepoan eta ikusiko dugu zer ordutan esnatuko garen bihar. Gaur nire bizitza festa bat izatea nahi dut eta soilik horrek inporta dezan; eta bihar kaskarina dei nazatela (egin ohi dutena da) eta nik kaka egingo diet gainea, biharamunaz eta minez apurtua baina ongi egindako lanaren sentsazioarekin, zein latza den hil-aurreko bat medikuaz barrez ikustea, eta gainera hil-aurreko hori ongi lagundua egongo da, badaki zer den bakardade gorrian egotea, baina ez orain. Ez gaur. *Six-Packs and nothing to do* pare batentzako geratzen zait, gora *Black Flag*, (eta Jon jaunaren portalean paratzen naiz) eta hirugarren A solairuari dagokion

interfonoaren botoia sakatu dut. Ez dago erantzunik, kaka zaharra. Baina Jonen usaina dago, bera den lurrina, baina nola demontre...?

- Susto! Bu!—, sorbaldan. Eta zerbaitek izterrean atximur egin dit.

- Joder!

- Zer egiten duk hemen?

- Bila netorrek.

- Zer ongi, telepatia dugula zirudik.

- Nondik hator horrenbesteko zamaz?

- Dendatik.

- Garagardo batzuk bai?

- Bai, beti.

- Ludmila?

- Berriz Berlinen.

- Lamadrekelpario. Han hemen baino denbora gehiago ematen dik. Ez dakit inbidia diodan.

- Bada, nik bai. Horregatik deitzekotan egon nauk, mendeku gosez.

- Hi bai tipoa.

Bere atera heldu gara. Lurzoruan Vincent Vega eta Jules Ezdut-oroitzen-zerrek ongietorria ematen digute euren burniekin geu apuntatuz. Oinetakoak haien gainean garbitu ditut, kaka jan, ka-

broi-ha-la-ko-ak. Sasikumeena ikusi al duk? Ezetz erantzuten dut, badakik ez naizela zinemazalea. DVDan ikusiko diat poz-pozik. Esan beharra dut Quentin jauna berriz ere gogoko dudala.

Diskoen gailua dagoen gelara heldu gara. Jonek bere pausoei jarraituz erosketak eramanez dituzte sukaldaria. Etxean banango bezala *Rapemanen* diskoa aukeratu, bolumena igo eta sukaldaraino heldu naiz birrak hozkailuan uztera, bi salbu. Barruan hogeita lau daude gutxi gorabehera. Ongi egin, Jon. Jakiak gordetzen, despentsa txukuntzen eta sukaldaria garbitzen lagundu diot, afaltzea bururatzen bazaigu ere. Ez dut uste. Egongelara itzuli gara. Horman, Gainsbourgen argazki bat ikusi dut zintzilik, zuri-beltzean, eskuan kopa bat duela bainuontzian. Luden gustuko argazkia. Hain urrun eta horren gertu, andereño. Rapeman ondoren, Tortoise jarri du Jonek. Nolanahi ere, Chicagon gaude oraindik, ustez. Abestia bukatu orduko Jonek poltsatxo bat utzi du mahai gainean, “you bring the razor blade, I’ll bring the speed” kantatuz Weenen “gau luzea izango da” abestia, eta pintxatzen duen bitartean “*qué carajo*” esan du Mexikotik ekarri zuen azentuarekin eta lanari ekin diogu. Eszena hori Big Black entzuten bukatzen dugu, eta “tiro porque me toca”, lurralde ez hain gogorretatik ibiltzea erabaki dugu diskoak jartzen ditugun bitartean, nahiz hau esateko modu bat izan, izan ere batetik bestera erraztasun handiarekin egiten dugu salto; gauetik goizera bezala. gaur bezala.

Nick Cavetik Nancy Sinatra eta Lee Hazlewoodera, Black Heart Processionetik Palacera, Giant Sandetik John Faheyra, Skapeletik Tinariwenera, Coltrainetik Morphinera, eta Morphinetik ekinera berriro. Azken hauen beste abestia jarri dugu eta odola irakiten beste zerbait eskatzen ari zaigu. Vétales,

Cujo/Amon Tobin, Aphex Twin eta LCD Soundsystem, Liars, The Fall. Rapture eta Sonic Youthere tartekatzen dira. Sonic Youthak beti hor daude, Paris bezala. Replacements eta Feelies, Stranglers entzun dira. Ramones, Stooges eta MC5. Garagardo gehiago ireki dugu. Beste lurralde batzuetara goaz, Elvis, Tom Waits, Neil Young eta Shuggie Otis. Dylan. Linda Permarcs, Captain Beefheart eta Moondog, Rolf Harris, Kevin Ayers eta Miles Davis. Ray Cooder, Cash, Umiliani eta Pisanoren zer bait, baita Cinematic ere, eta hau hasi bakarrik egin da. Gaur, bistan denez, ez dugu afalduko.

- Behingoz Kokorekin ausartu haizela esan zidatek.
- Gutxi gorabehera. Gora gehiago behera baino.
- Eta zer moduz?
- Uste baino hobeto.
- Eta bera?
- Beti bezala. Nik ilusioak egiten jarraitzen dut, badakizu nolakoa den.
- Zer moduz taldearekin?
- Hortaz ere hitz egin nahi nian. Kontua ondo zoak, baina ideia berrietan pentsatzen ari nauk.
- Chisme barruan?
- Ez, ez ezak izorratu. Zenbat denbora duk ez diagula elkarrekin jotzen?
- Eternitate bat.
- Gustatuko litzaidakek?

- Uste nian ez hidala sekula eskatu behar.

- Eta hori?—, Jonek, altxatu, eta beste disko bat jarri du.

- Hitz egiteko era bat duk soilik, baina logikaz betea, nire ikuspuntutik. Gustu antzekoak ditiagu gutxi gorabehera, eskola berdinetik gatozek, urte asko dituk... eta elkarrekin joak gaituk ere iraganean eta, egia esan, gustura aritzen gintuan. Edo ez al duk egia?...nahiz bukaera izan zuan modukoa izan.

- Berdina pentsatzen diat nik ere, noski. Gainera sekulako gogoz nabilek

- Neu ere.

- Ongi, zeren kasu horretan, bohemioak bagina arituko gaituk gau honetan goizeko ordu txikiak arte gaiari buruz hitz egiten eta, bihar, zein serio zihoan broma egiaztatuko diagu, hitz egindako guztia zenbateraino den gauzagarria eta nola dauden geure jarrera eta trebetasuna hartarako. Topa horrexegatik.

- Txintxin.

- Ching-ching.

Anabasa guztia biltzen dugun bitartean disko batzuk gehiago jartzea erabaki dugu, eta kalera joan gara. Hogeiko billete bat aurkitu dut portalean. Jode, hau da hau zortea, bizitza aldatuko ez badit ere, ordu batzuk gutxienez bai. Hau Jonekin nagonean bakarrik gerta dakidake, haren zorte ona batzuetan kutsakorra da. Ez gara kopazaleak, akaso baten bat bazkari oparo baten ondoren, digestibo bat, gin tonika edo nire kasuan, oso mozkorra banago, cubalibre bat; eta, komunera bisita egin ondoren bada, hobe. Jada kafea ez da nahikoa izaten eta bide errazera jotzea ohitu egiten da

bat. Horrexegatik, Egia bezalako auzo batean hogeit hamar euro askotarako eman dezakete: bi eurotan kaña eta batean zuritoxa, gutxi gorabehera. Ohikoa da inguruko kaña ez gustatzea batek garagardoa ongi botea hartzeko zortea izan badu behintzat. Taberna bat izango banu (“If I was a rich man” kantatzen banengo bezala diot) egingo nukeen lehen gauza Madrilera joatea izango litzateke, adibidez, gaiaren inguruan kurtso bat hartzeko. Mukia dariola eta ziztu bizian hitz egiten ari naiz, fulespitan. Esan nahi duk, ihardesten dit Jonek zuzenki, barran egongo litzatekeen laguna bidaliko hukeela klase horiek hartzera. Izan ere, taberna bat zabaltzeko dirua izango bahu, hau da, aberatsa bahintz, ez huke eskuak zikintzera joan beharko. Joe, ez diodala lan egiteari beldurrik erantzun diot eta gizarte-ekintza moduan egingo nukeela gainera. Ohar hadi zenbat garagardo zale zeudeken auzo honetan eta zer birra txarra edaten den. Akaso Josu eta bertakoek, baina ez da aski. Eta zer diok garagardotegi deitzen duten munstro horietaz, sekulako dirutza eskatu pinta baten truk eta botatzen jakin gabe gainera? Gehiago esango diat, detailetxoak, joe. Lapiko bat sutan, gazta pittin bat, fruitu idor batzuk, ozpinez ondutako zerbait, koño, eta mokadu batzuk aterako dizkiat, gustuko dudalako eta hori ezin liteke izan tabernaren jarduera zapuztuko duen gastu bat. Gainera, adituen ustez (nahiz eta honi buruz ideia handirik ez izan, arrazoia ematen zieat, baduelako bere logika) hemen ez dituk garrantzia handiko hainbat xehetasun kontuan hartzen, presioa, hodian luzera, hauen garbiketa bera, mantentze lan soilak. Izorratu beharra zegok, ipurtzulo usaina zeukak kañak zenbait lekuetan hemen, ezin duk hori edan, zer nazka! Eta gazteriak, jada iso edo arre berdin zaien orduetan (hik eta nik bazekiagu zertaz ari nauken) ez dik deus esaten, denarekin amen. Ohar hadi, zenbat garagardo upel aldatzen diren astebururo. Gogoratzen haiz Esterlinesera joaten

gintuanean? Ikusi al huen noizbait sistema garbitzen? Nik ez diat oroitzen. Ziurrenik guri ere bost axola zaporearen kontuak garai hartan, gaur egungo bezeroei bezala, eta horregatik beharbada dik gaur egun ere zapore berdina, duela hamabost urte zian berbera. Ipurtzuloarena. Eta esaidak azken gauza, gutxi gaituala iruditzen zaik garagardo edaleak? Gutxi batzuk bagintuk uler nezakeen, baina mordoa gaituk! *Heavyak* bezala.

Horretan gaudela, zentzu izpi batek ohartarazi digu biak aldi berean hitz egiten eta elkarri entzun gabe ari garela. Txorakeriak esanaz, bidenabar. Dirua bukatu eta gure topaketari amaiera eman diogu. Barrez, botila ia hustuekin topa egin eta komunera noa bat-bateko sabelpeko estualdi tamalezkoa libratzeko asmoz. Jende ilara dago. Ezin-dut-gehiago-jasan, e-zin-dut-gehi-a-go. Kalera noa. Zorte kolpe bat, ez dabil inor. Kale bazter batera joan eta prakak txorkatiletaraino jaitsi ditut. Ipurdia beheratu (kuleroak belaunetara jaisteko denbora izan dut soilik), nahikoa zorionez, eta hezurdura guztia husteari ekin diot Chinaskiren aurpegi berberean eta egoera hontara iristera ahalbidetu duten arrazoi guztietan. Egoera ekonomikoa, esan nahi dut. Hobe sentitzen noa. Nire buruari barre egitea lortzen dut, naizena, om, izan naizena, om, izango naizena, om. Guztiari barre egitea lortu eta gaur, gutxienez, proposatutako zerbait lortu dut: nire zoria aldatzea. Bai, bai, behea joaz, entzun diot nire buruari. Zein ostia dabil hor? Ez al diat ostiko batez etxera bidali? Tabernara sartu eta Jon ikusten dut utzitako lekuan, zorionez. Zer esaten ari gintuan?

- Bagindoazela, zenbat denbora egon haiz kanpoan, kabroia.
- Urakana pairatu dut, *Bluesexplosiona*.
- Banengoen, segundo batean zuritu haiz.

- Beno, goazak. Aizak, hire etxean lo egiterik bai? Nireraino joateak galbana eragiten zidak.

- Noski. Sekulako aitzurrarekin hago, gainera

Esnatzerakoan paper idatzi bat ikusi dut mahai gainean, mugitzen ez den gauza bakarra, beste guztia bueltaka baitabil. Gehiago, guztia biraka dabilela uste dut, grabitazio eremu batean bezala, paper idatziaren inguruan.

- Eta hau?

Joe, Jonspencer- urakanaren txistea, ez didak egiteko denborarik eman eta materializatu egin da. Poetikoegia agian baina beno, bizitza propioa duela dirudi. Hitaz ari dela uste diat.

- Hori uste duk?

Mekaguendiosaren Bluesa

berandu da, ez dut arropa garbirik ez aitajaunik
baina nire gitarra ametsez betea dut...

eta nire esku dorpeek ez dituzte harrapatzen.

Aitak dio alderrai nabilela

eta amak lotsa eta nazka ematen dudala.

Krapula eta harro dabilkit bere atsekabea

eta jeneralik gabeko armadaren kasketa.

Hala satrapa demonioa deitzen didate

Putakume eskergabea, doilorra.

Eta ni, neurera.

Berandu da, ez dut entzulerik ez biderik

Baina bertsoak ditut sakelan.

Badakit ez dituzula gustuko, baina hala izanik ere
belarrira abestuko dizkizut.
Mozkorra, zauritua... Zergatik ari naiz barrez?
Jainkoari tu eginaz, hasperena.

- Zer demontre? Bat-batean bururatu zaik? Kabroi halakoa!
- Bai zera, urteak daramat lantzen, soilik hitaz nabilek barrezka, baboa.
- Jode, majoa hi.
- Ez hadi haserretu.
- Kabroia, horrek Ptinto gogorarazten zidak.
- Ja,ja
- Ja,ja

Abiapuntura itzuli gara, igogailua hartu eta, segituan, hilzorian sofán erori naiz, leherturik. Jonek manta batez estali nauela uste dut. Hil egin naiz bihar bertan berpizteko, ea sorterik dugun.

Esnatzerakoan Jon ez dago, kalera jaitsi da. Kafetera prest utzi du eta ohar bat dei dezadan. Egin dut. Lokalean dagoela erantzun dit ahots ekipoa prestatzen eta bateria prest. Joño, bohemioak ez garela argi dago, guztiarekin, benetako bohemioa gaur ez litzateke ohetik altxatuko. Izatekotan gezurrezkoak, geure zelulen muina osatzen duen txatarra bezala. Gosaltzeko bi ogi zati txigortu olio eta gatzarekin jan ditut, eta espidifen bat; gero kafea eta lili bat komunean. Ongi nago, autobusa hartu eta Astigarragara abiatu naiz Jonen bila. Heltzean ezin kabiturik nago, nire anpli zaharra balbulak berotzen (esker mila opariarengatik) eta lokal

hartan dudan gitarraren sokak aldatu dizkit (beste opari bat, erabat izorraturik zeuden. Joño, faltan bota haut, gitarrintxi. 60. hamarkadakoa da, japoniarra, arina eta lizuna, nire kutunenetakoen), Begiratu bat eman diot lokalari, pare bat hilabete handik pasatu gabe, Chismerena gertatu zenetik, garaje puta honetan gorderik nuena ikusteko; eta ezkerretara ere begiratu dut, gure lokaleko bizilagunek ekipoa jarrita duten lekura, jasan ezin dudan tipo bat bada bertan, arraroa, paranoikoa eta nirekiko itzelezko mania du gainera. Zerbait gaizki doala sentitzen badu, beti lortzen du niri errua botatzea, edozer izanda ere. Erreberbera izorratzen bazaio, ni izan naiz ezkutuan alikate bat hartu eta bere anpli kaxkarrari kablea moztu diona. Zoro halakoa. Plater apurtzaile edo zakur hiltzailearen ohiko istorioa da, nola zen? Behin zakur bat hil eta betirako...jarraitzen duena. Kontua da ez dela horrela ere. Zeren duela hamar urte baino gehiago apurtutako platera hori (edo hildako zakurra) nik ez bainuen hautsi, garai hartan gurekin zegoen abeslariak baizik. Baina beno, Jon eta biok hori jasaten jarraitu behar... okerragoa den beste zerbait pasatu arte, noski. Behin baino gehiagotan gure ekipoa lehertzearekin mehatxatu digute. Erotzekoa. Eskerrak ez duela inoiz egin. Honek oroitarazten dit ez legokeela gaizki haize berriagoen bila hastea. Aski da, urte mordoa daramagu hemen sartuta eta aldatzearen ekintza bera (entsegurako leku aproposa aurkitzeak ezinezko zeregina izan arren) ongi legokeela burmuina oxigenatzeko edo garbitzeko besterik ez bada. Ez dugu komunik gainera. Nire ametsetako entsegu lokala, eta nire jendeak ongi daki, jarraian azalduko dudana da: Oinarria musikariek bilera batean adostutako talde mugatu batez osatua legoke, inoiz ez artistak. Artistek, gezurrezko artistek, artistatxoak (mundutxo honetan ugari diren artistatxoak) ibiltzen diren gauza guztietan arte lanak ikusteko gaitasuna dute; lanari eman denborari balio erantsia emateko eta,

era berean, baita emaitza eta beraien pertsona eta pertsonaien kontzeptuari ere. Kontuz, hau kristorena iruditzen zait, bakoitzak nahi duena presta dezala bere osagaiekin eta, noski, beti daude salbuespenak (zein zailak diren aurkitzen!), baina nik modu honetan pentsatzen dudanez, ideala ni bezalakoekin bakarrik elkartzea litzateke: gogaitzen gaituen ohikeria beste era batera kudeatu nahi duen jendea, telebista ez pizteko elkartzen den jendea. Ez bere kezkek motibazio jaso baten bidez adierazteko beharra sentitzen dutenek edo jendartearen gustua goratzeko, ez hauenganako maitasunagatik, edo batzuentzat haiekiko duten zorragatik, zer demontre, ez eta ezin hobeki egiten dutelako ere. Musikarekiko nire gertuko ikuspuntua duen jendea, finean hori bakarrik bilatzen duena, topikoak esaten duen bezala, rock and rolla. Oinarri horrekin komunitate bat sortzea litzateke, musikariena berriro diot, non sentrazioak, esperientziak, eszenatokiak, proposamenak eta proiektu desberdinak partekatuko liratekeen. Demokratikoa ez dena. Puaj. Muin bakoitzak bere espazioa edukiko luke eta intersekzio bat komunean elkartea biltzeko. Eskolako taldeak bezala. Baina ez elkarte sindikalista bat bezala mesedez. Puaj. Elkargune hau plataforma komun bat litzateke bertatik geure erokeriak munduan bonbardaketa bailiran lurreratzeko, zoro moduan, eta haietaz eztabaidatu ahal izateko leku bat, foroa. Eztabaidari bide emateko leku aproposena mahai inguru bat dela sinesten dut irmoki eta menu goxo baten bidez bada hobe, eta irmoki uste dut ere erabaki zuzenak tripa beteta hartzen direla, hasiberria den eztabaida amaitutzat emateko modu egokia. Hortaz, geure azpimultzoko talde apetatsuak marraztu duten espazio horrek lasai asko egokituko lirateke zenbait bilera gastronomikoetan arnasten den adiskidetasun girora. Elkarte beraz, onartzen bazait, Gastrosonika bezala izenda genezake eta ongi hornituriko entsegu lokaletan izango luke espazioa, hauetako

lokal bat grabazio-gela izango litzatekeelarik. Ke irteera duen sukalde txiki bat, mahai luze bat jarraian eta, azkenik, erabiltzen ari ez den ekipoa eta komunitateak argitaratzea erabakitzen duen materialen kaxak gordetzeko gunea. Gainera bildutakoek kofradiakide estatusa izango lukete, eta ez dakit hau guztia nola ordain daitekeen baina ez zait ezinezkoa iruditzen. Hogei urte baino gehiago dira entsegu lokalen alokairuak ordaintzen ari garela (arrunt kaskarrak bestalde), gainera ez ditugu hamabost urte jada eta uste dut gauza hobeagoak lortzeko eguna iritsi zaigula. Bai ala bai. Eta aukeratzeko hasiz gero, hauxe da nahi dudana, hauxe da nire asperduraren aurkako ametsa. Eta noski, gaur egun ez ditugun lokaleko kideekin ere amesten dut. Beraiek berdin pentsatuko dutela uste dut. Eta balizko kide berri horiekin (hainbeste emozionatzen naiz honetan pentsatzen dudanean) aldeztu aurretiko jarrera soberan izango nukeela tailer bat sortzeko, musika gunearen barruan haurrei zuzendutako musika eskola bat asmatu haiekin egindako lanean oinarriturik; izan ere, ez lirateke musika terapeutak faltako kideen artean. Ah, baina ez litzateke terapia gunea izango. Izatekotan, barre terapia litzateke.

*Standby*ari eman diot. Elektronikaren hotsak nire gitarraren pastilak bozgorailuen hurbiltasunari katalizadore moduan erantzuten diote, bat-batean zentzua hartu du denak, neuronen arteko txinparta bakoitzak mila gehiago tirokatzen ditu, eta beste hainbat irudik nire kontzientzia harrapatu dute, eta orduan bihotza hasi da agintzen, Jonenarekin bat egiten duen erritmoa markatzen, ala ez, bost axola, eta bere aginteak itsuki betetzeko beharra sentitzen du batek. Geure begiradak elkartzen direnean ez dugu ezer esan beharrik, baina dena esaten diogu elkarri.

14.

Oinez noa kaletik, nire jendearen auzotik eta euripean, hezetasunaz nekatua baina humore onez, hogeiko billete bat eta hamarreko beste bat poltsikoan kale bukaeran dagoen brokante bitxira sartzeko zorian. Lurretik botata dauden milioika gauzen artean badaude egoera harrigarri onean dauden diskoez beteriko kaxak eta noizbehinka pasatu eta batzuk eramaten ditut harrigarritzko prezioan ere. Nire lagunei ikasitako taktikak erabiliz ez diot inori esan. Gaur, Tom Waits, Einsturzende Neubaten –ez dut inoiz hauen izena ikasiko eta karpetan begiratu behar izan dut berriz ere–, Boss Hogen lehena, Thelonius Monken bi, Gainsbourgen single bat eta Los Brincosen beste bi. Laboaren beste hiru disko ikusi ditut, baina itxaron egin beharko dute, Ramones, Sinatra aita, jazzaren klasikoak eta Einsenen beste batzuk bezala... Kaka, berriz begiratu behar izan dut eta *Die Haut* ikusi. Ongi ikusita ez dira gutxi. Kaña batzuk hartzeko hadina geratu zait eta banoa tabernara. Xabi barran. Izkinan XXX bere semearekin YYY bi aulkitan eserita eta Xabik kaña botatzen duen bitartean agurtzera hurbildu naiz. Xelebreak, hogeita hamar urtek bereizten dituzten bi klon dira. Barregarria gertatzen da zein den aita eta zein semea zalantzan jartzea, agerikoak diren ahotsen tono eta tamainaren desberdintasunak alde batera utziz. Adibidez, orain bertan: XXX izozki bat hartzen ari da, ankak zintzilik, balantzaka dituela, entzuten baina ez aditzen, YYY-k routerra nola martxan azaltzen ari zaioen bitartean. YYY-k 9 urte zituen aitak 26

zituenean. Amari buruz ez dakit ezer. Zerbait hartu nahi duten galdetu diet eta ezetz erantzun didate, ederki daudela. Beraiekin eseri eta neu ere hankak balantzaka hasi naiz.

- Asteburu honetan jotzera aterako zarete, ez da hala?

- Hala da.

- Aja, eguneratua zaudela ikusten dut.

- Atzo yanki batzuk jo zuten hemen, soinu proban egon ginen eta soinu ona zuten, baina badakizu, etxean egon behar...

- Ezin izan nuen etorri baina izugarri ondo egon zirela esan didate, Camarónen bertsioa eta guzti.

- Benetan?

- Benetan, nahiz eta berriz esan ez nintzela egon.

- Ez dut sinesten.

- Galdetu Xabiri.

Joaten utzi diot eta galdezka ikusi dut jakin-minez, neuri begiratzen didate eta farre egiten dute, eta nire gogoia beste nonbaitera ihesi doa. Bi metrotara baino gutxiagora dagoen emakume batek zigarro bat piztu eta zurrupada luze bat eman ondoren kea bota du. Gero hasperen egin du. XXX berean darrai. Musikak, beste gauzen artean, ihes egiten laguntzen du eta ordurako nire burua hozkailuan dudan idi isatsa prestatzeko Jonek pasatako errezeta berrikusten ari da, Luzioren elkartean prestatzeko gelditu garen bera. Lagunduko dion edarira doaz gogoetak. Alkoholemia tasara ere, madarikatua, itota nauka eta

konplexua izaten bukatuko dut nahiz eta oso zuzena izan afaltzera joan eta ongi portatzea, saindu bat bezala edan gabe egon festaren muinean, edatearen eta denetarik hartzearen erromesbidean zaudenean; Iparraldekoiei edo kaletik doazen edozein turistari galiezaiezu. Baietz, Pinoteka eta gafapasta kultoari pasio asko baina hemen benetan ongi egiten dakiguna ongi pasatzea da, batzuen atsekabez. Hainbesteko debekuekin ea esandako turistarik gabe geratzen garen. Edo ditxosozkoak, nahi bezala.

“Haragiari, lapikoan jartzean, kolpe eder bat ematean datza trikimailua. Berdin gero barazkiarekin, hartu beharreko kolorea har dezan, badakik”, bere ahotsa oroitu dut nire parean eskuak gerrian eta irria galdu gabe. Tango bat entzun da eta alkohola datorkit berriz ere burura, generazio aunitz gara beste era batean heziak eta kostata aldatuko dira hain barneratuak ditugun ohiturak. Beharbada emaitza onak izango ditu politikoki egokia ez dena kriminalizatzeak, edo arriskutsua dena, edo onartzea kostatzen dena. Haserreak ergelkeriak pentsatzera narama eta agian autoak debekatzea errazagoa izango litzatekeela, edo hauen prezioa igotzea soilik aberatsek erosteko aukera izan dezaten. Joder, horrela murriztuko nituzke nik bederen errepideko auto istripuak gutxienekora, Agintari Eskudunak arduratuko liratekeen moduan baina kontrako zentzuan. P-Q bada, orduan Q-G litzateke, beraz P G da. *G de Gilipollas*. “Barne arazoa petrolioa da, den dena bere baitan hartu eta usteltzen duena”, garondoa ez dut balizko Txua zertzelada botatzen entzun ardo usain eta zezen zaporearekin; likido beltz preziatua bezain likitsarekin. Aste batean erregaian xahutzen dugun batez bestekoa kalkulatu dut, hilabetera pasatu eta ni bezalako ezjakin batek hilero ordaintzen duen ehunekoa kalkulatu dut. Gero, astebeteko janarian, uretan,

telefonoan, elektrizitatean, berogailuan, alokairuan, garagardoan eta ardoan, speedean ditudan gastuekin konparatu dut. Argi dagoena, salda honek ohorezko lekua duela pertsona fisiko nahiz juridikoen gastu finkoen artean. Eta autoa geure kulturaren funtsezko elementu bilakatu dela, ia nahitaezkoa lanerako, bidaiatzeko, Jacken bila joateko, edo motorra al zen hori? Bah, berdin dio.

Autoetatik publizitatezko iragarkietara noa salto batez eta bertan gelditzen naiz. Iragarkien musika kontu handiz egina dagoela dirudi. Pop edo Rock musika, hau da, herritarra eta garaikidea, jarraitu dut pentsatzen. Eta antza konpositoreak hartara jarriak daude irmoki, motibazio handia sortzen diela dirudi. Trukean jasotzen duten diruagatik izango da, diot, ezin baitut bestela ulertu non dagoen grazia. Artista handi baten artikulua bat (benetan gutuna zena) oroitzen dut, ea harira datorren. Adarra jo zioten, oker ez banabil, eta koherentzia handiz azaltzen zuen gaiari buruzko bere jarrera. Ezin hobeki, egia esan. Batek pentsa dezake bere burua saltzen ari dela bere arte lana marketin enpresa baten zerbitzura jartzean, baina benetan egiten duena, bere entzuleak saltzea da. Niri bakoitzak bere gauzeekin egiten duena zipitzik ere ez zait axola, zerbaitegatik dira bereak. Baina publizitatean dabiltzan pertsonen ikuspuntutik iluna da, joko zikina ezkutuan, edo susmo hori hartzen diot. Eta hemen nator guztiz bat berarekin.

XXX-ek eramane du YY etxera (edo alderantziz izan da?) ni agurtu ondoren. Bizkarraren beheko aldean, batetik bestera gurutzatuz tatuatuak daramatzan eta ezizena ematen dioten hiru ixen ertzak ikusi dizkiot; lotsagabeak, autopsia egiten diotenari

zerbait esango diotenak, ekidin ezinezko unea, hiltzen gaituena, iristen denean. Hori da gutxienez berak esaten duena.

Azken garagardoa hustu, zutitu eta etxera noa, Camarónen bertsioarena argitu gabe.

Kalean hotz dago eta jaka goraino lotu dut. Pausoen erritmoa estutu eta autora naraman aldapari ekin diot. Kopilotuaren atetik sartu naiz, bestea ez baitabil: kapota, irratia, botoiez igotzen diren leihoak, erreduzitzean destolestu egiten den hirugarren martxa eta aginte mahaiaren argia bezala. Kanta-marmarrean, ia automatikoki iritsi naiz etxera azkenean. Zakur bat banintz bezala astindu dut nire burua, giltzak sukaldeko mahaiari utzi eta Theloniusek diskoa jarri dut. Zopa berotu eta ezin hobeto sartu zait.

15.

Berandu iritsi naiz solasaldira. Burua azaldu orduko kafez husturiko katiluek atzerapena aurpegiratu didate. Ke itxia giroan, begi gorriak, musika lasaia eta berriketa piztua. SGAE hemen, SGAE han. Ama maitea. Berriro. Zigarroa bildu eta tea prestatu dut. Atzo lokartzekoarekin pasatu egin nintzen. Ja.

Izkinako mahaiaren gainean disko batzuk daude. Oraingoan esku hutsik heldu naiz, eta nahiago dut arreta disko jogailuan jarri eta ez oso distraitu itxura eman guztiek ongi asko ezagutzen dituzten eskubideen kudeaketaren sozietateen gabeziez diharduten bitartean, Creative Commons eta zuk zeuk egin leloaren txorakeriez diharduten bitartean. Luziok oparitutako Mojoren ale berezi bat ekarri dut eta, uzten badidate, gero azalduko dut. SGAEren eta internauten, politikarien eta epaileen artean sortu den eztabaidak izugarri gogaitzen nau. Kazetariak, hienak haratustelaren aurrean bezala, eskuak igurzten dituzte. Ez guregatik, noski. Norbaitek ahotsa goratzen du Bautista jaunari buruz hitz egiteko eta zein lizuna den tipo honek, bizi ditugun garaiak bizita, berrehun eta berrogeita hamar mila euro urtean irabaztea, bai eta berau agertzeko duen modu publikoa ere. Ados nago, diot nire kolkorako. Antza, gizon honen aburuz 90. hamarkadatik hona SGAEk izan duen diru-sarreraren hazkundera bere kudeaketari dagokio zuzenean eta, beraz, bere soldata justifikatua dago. Gainera, bere kargu bertsuan dauden sozietate antzekoekin erkatzen bada soldata baxuagoa da. Ole. Ez dute deus

ikustekorik edukiko fakturazioarekin autore eta editoreek, eurek kaleratutako milaka eta milaka diskoek. Eurek, gu..? eta beste batzuek urte horietan. Niri bost axola, ez dit gogoan eragiten, baina gauzei bere izenez deitu behar zaie. Egunak igaro genitzake SGAEko zuzendaritzak arrunt gaizki egin dituen gauzei buruz hitz egiten, baina okerrena jendearen baitan txertatu den ideia dago. Hots, kudeaketa sozietateak berez lapurrak eta arazo sortzaileak direla. Hau da, ez SGAE zehazki, edozein sozietate baizik. Zehazkiago, horixe bera da orain eta hemen esaten ari dena, ohartu gabe aldameneko mahaian dauden diskoen % 100ek SGAEren pareko den zigilu amerikarra, ingelesa, frantsesa eta belgikarra daramala. Oso alegera jartzen ditugu diskoak, oso guaiak eta underground diren jendearenak, gakoa zein den ohartu gabe. Mundua itsu dago, baina nik argi ikusten dut, Butch Cassidyk *Dos hombres y un destino* filmean esango lukeen bezala. Bost gara gaur, baina txantxak merezi du. Jabetzaren arazoa dator gero (dio gutariko batek), intelektuala baino jabetza, finean. Neure lagunak erdiak jabetza bukatzearekin ados daude, jabetza besteena denean, batez ere. Badakik, dena denentzat eta denentzako, baina nire bizikleta niretzat. Hobe esanda, abesti hau nirea dela diot beste batek ideia lapur ez dezan edo gustuko ez dudan norbaitek nire baimenik gabe erabil ez dezan. Orain, erabili nahi duenak gustuko badut arazorik gabe aurrera. Nola ez! Graziosoena, guztiarekin ere, bilduta gaudenek inoiz ez dugula xentimorik ere jaso egile eskubideengatik, *royalty*engatik eta abarrengatik da, beraz, honek guztiak defentsa mekanismoaren usaina du, nola ez! Ni bezalako jendea. Baina xelebreagoa oraindik beste erdiak pentsatzen duena, diruaren txin-txin hotsa entzun dutenena. Kasu hauetan autojustifikazio modura erabiltzen dituzten aitzakiak irrigarriak dira, eta autore gutxi dira gaur egun SGAE ahots goraz babesten dutenak. Baina hoberena bi jarreraren

artean egotea da (ostiaka hasi behar dutela eta norbaiten alde lerrokatu behar duzula dirudi) eta tiroak nondik doazen ikusi.

Nola zergatik ez diren diskoak saltzen?, koño, “produkzioaren” kalitateak zerikusia izango du honetan eta salneurriak ere, diot nik. Autokritika apur bat ez legoke gaizki eta, azkenik, melomanoaren ikuspuntua ez galtzea; hots, guztiak garen hori (neurri handi edo txikiago batean), nahiz inortxok ere ez onartu. Baina nola izorratzen duen hoge euro baino gehiago ordaintzea disko batengatik!

Kanpaiek salbatu gaituzte. Orratza gehiago eskatzen ari da eta norbaitek Clashak jarri ditu, eta nola komuneko bi eserialditan eurei buruzko liburuxka irakurri dudana (*A riot of our own*, Johnny Greenena), elkarrizketa bat hasi dut eurei buruz eta giroa baloreez aldatu da.

The Clashetik Nick Cavera. Cavetik Waitsen zuzenekora etab. Ekarri dudana aldizkaria zabaldu eta guztientzat irakurtzen dut editoriala, Tom Waits editore gonbidatu bezala (Joder, leku guztietan dagoela dirudi, egun hauetako entzunaldiekin zerikusia izanzen duela pentsatu dut). Hauetako paragrafo batean gutxi gora behera eta testuingurutik ateraz horrela dio: “Antza denez, basoan bada txori bat hain doinu eder eta ezohikoa kantatzen duena, ezen beste txori guztiak isil-isilik gelditzen diren entzuteko premiaz”. Puntuaren ondoren segidan idazten du txori horren izena Belafonte dela uste duela. Koño, zer modu ederra norbaiti diozun mirespena azaltzeko eta gauzen egoera azaltzeko. Elkarrizketa gainerakoak isiltzen diren txori horiek bezalakoak garela esanez amaitu dut. Geu, noski, ez gara Belafonte, baina ez gaitzala inork

pioka aritzeko gogoa ken; izango dira batzuk besteak baino ederragoak baina garenaren zati bat dira ere. Ez gehiago, ez gutxiago. Nahiko da hitz egiteaz. Ekiteko ordua iritsi da, zuti gaitezen eta goazen jotzera.

16.

Zaharrarekin gelditu naiz ardo batzuk hartzeko. Hark umeen gisa gozatuko lituzkeen SGMko dokumental batzuk ikusi ditut, beraz, hortaz aritzeko aprobetxatuko dut, bai eta duela bi aste utzi nizkion *Man in Wire* eta *Year of the horse* filmez ere. Ezagutzen dudana bezala ezagututa duda egin dut biak ikusi izana, zirikatzeke aukera izango dut, hortaz.

Garaiz aurkitu gara (beti bezala) eta Los Pekenikesen single zahar bat dakar (*Cerca de las estrellas* duena) liluraren, pozaren eta ustekabearen nahasketa sortu didana. Gustuko dugun taberna zahar batean sartu gara. Beltz gazte bat nik eta verdejo bat berak. Mokadu bat eskatu dugu barran jateko, zurrutada hobeto pasatzeko eta mihia astintzen hasteko, denbora txorakeriatan galdu gabe, muin sozialera. Familiari gainbegiratu bat, lagunarteari, egoera geopolitikoari, gai garaikideren bati. berriei. Lana. Hain gustuko ez dudana tabernara aldatu gara. Hirugarren ardoa eskatu eta masailetan nabaritu dut. Elkarriketaren eta algaren bolumena igo dugu. Laugarren eta azken tragoa hartu aurretik (beste leku batean, mesedez) segundo bat itxaroteko esan diot; izan ere kudeaketa bat egin behar dut, goraxeago hain justu. Baina lagundu nahi nau (berriro dio). Beno, ez gara larrituko, jada ohituak gaude.

Dumasek atea zabaldu digu nire aitari harri duraz begiratzuz. Agurtu eta aurkeztu egin ditut sartzen nagoenean. Etxean gaur

usain zikina dago, kaka usaina esan nahi dut, eta horrek eragin du orain nire aitag edukitzea harridura aurpegia eta aurpegian azaltzeko zaila den keinua; normaltasuna adierazi nahian, itxurari eusten baina nazka adierazten duen keinua ezpainetatik ihes egiten utziz. Marokoar bat agertu da orduan salako atletik bakerotan eta kamiseta gabe. Aurpegi txarra eta gerritik aurpegiraino kolore horia du, zurbila. Neu ere harritu naiz oraingoan. Guztientzat dago. Dena den, hariak lotu ditut istant batean Dumasek marokoarrari etxean ezin duela gelditu eta tripan daraman guztia ezin badu bota ez dela bere arazoa esan dionean. Aitag ez da bere harriduratik atera. Presentzi bitxiaren zergatiak eta Dumasekin duen harremana niri bost axola, baina ez nuen espero eta aitarentzat egoera bortitz xamarra da. Nabari diot. Horregatik bukatu eta lehenbailehen jaistea erabaki dut. Horrela egin dugu, nik *Jack Herer* pare bat poltsa eta hurbil dudana bidaiarentzako pitarra apur batekin, eta, aita, nahiko azkar pasatu zaion berebiziko haserrealdiarekin. Eskerrak. Marihuanari buruzko edozein iruzkin saihesten du (beste guztiaz ez dela jabetu uste dut), eskertu diot. Dena den, bere gaitzespena modu poetiko fin batean bota du eta nik irmoki jaso; berak nahi duen bezala, berak bakarrik egiten dakien gisan.

Alderdi honetan gustukoen dugun tabernara sartu gara. Azken ardoari aurre egin diogu (Finca La Estacada oraingoan) eta elkarriketak (orain pixka bat grabeagoa) ahaztutako seriotasuna dakar zitara. Elkarriketak hurbiltzen eta berotzen gaituen gure bizitzako pasio handietan elkartu da, benetako besarkada batean urtuz. To. “Plazerra da beti zurekin egotea” dira bere azken hitzak.

Bere sorbaldaren irudia urruntzen ikusi dut, bere-berea duen ibilerarekin. Singlea eskuan dut. begiratu diot. Begirada igo eta aitaren sorbalda ikusi dut berriz beste kalea hartzeko norabidea aldatuz. A zer tipoa, diot nire baitan.

Bihar gitarra eta aire.

17.

Etixerako bidean goaz. Edonon. Belgikan uste dut, pixa egiteko geldialdi teknikoan; zein garestia den gasolina! Bidaia luzea dugu aurrean eta irten berri garen arren sorgortua nago. Makinazko kafe kaskarrak barrenak berotzeko funtzioa bete du, arrain bat dirudit. Galderrek egin duena egin behar nuen nik ere, makina berdineko salda zatar horietako bat hartu, alegia. Zerrikeriak nolanahi ere bi gauzak. Hemen gaude biok eurogasolindegia honetara leihotik begira, europarrez inguratua eta gosea kentzeko sandwicha jan ez jan erabakitzen. Zerbait gehiago ere bada.

Ez dakit zer gertatu den zehazki, azkarregi pasatu da dena. Ostiral gauean Bochumen jo genuen. Errepideetan dauden plastikozko hotel horietako batean lo egin genuen, merke horietakoa, izena ez dut oritzen baina Formula1 baten antzekoa zen, eta dena ondo atera zen oroitzen dudan arte. Herenegun, larunbata, Holandako muga pasatu eta Amsterdameraino igo ginen eta Melkwegen jo genuen (handia izan zen) zinema festibal baten barruan, euskal zinemari eskaintzen zioten egunean. Irundik autobusez etorri ziren eta bertan parte hartzen zuten beste lagunekin elkartu ginen. Lau talde denera. Kokok, arraro xamar, kamerinoan pasatu zuen festa osoa, besteok konpainia ederrez

gozatzen genuen bitartean, eginkizunetan zentratuak. Funtzioa ezin hobeki joan zen giroari halako kitzikadura emanez, eta alkoholaren ausardia gehituz, bai, egia da, beharbada ez genion arreta gehiegi eskaini gure inurritxo atomikoari.. Beste taldeak Irunera bueltatzen ziren larunbatean bertan kontzertuen ondoren, baina nola bezpera iritsi ziren Amsterdamera egun osoa izan zuten hiriaz gozatzeko. Guk, kontrara, haiek lo egindako hotela aprobe txatu genuen eta igande goizean, hau da, atzo Anberesera zuzendu ginen. Ez dakit azkarregi ez ote noan, baina kontzertu hori bertan behera geratu zen... eta, hasteko, guri inork ez zigun deus esan. Iristeko bost kilometro falta zirenean jabetu ginen iruzurraz eta kontaktuak telefonoa hartzen ez zuenez hotela eta afaria gure kontura izan ziren, baina hau beste istorio bat da. Furgoneta parkingera sartu, kaleetatik ibili eta birra on batzuk edatea (leku aproposa horretarako) erabaki genuen, zer demonio, beste deus ez genuen egiteko eta irtenaldia bukatzeko modu zuzenena zen. Nik, neure aldetik, bira bukatzeko modu egokia zela pentsatu nuen eta asteburuko gertakizun guztiak taldea indartzeko balio izan zutela, bai eta hurrengo jira prestatzeko ere; jira motza baina oraindik ere interesgarria suertatzen dena. Ez nuen uste Koko jada sumindurik zegoenik nahiz eta hortz artean marmarrean aritu eta leihotik so egon begirada galduaz. Ni, ximpleki, bidaiatz gozatzen ari nintzen, aspaldi ez nuela bostehun kilometro baino gehiago bidaiatzen eta errepideari nion beldurra desagertzen zihoala ongi oroitzen dut. Hirian jo zuten azkeneko aldian ezagututako kafe-bar batean sartu eta sagardo antzeko garagardoa eman ziguten probatzera edo, nahi bada, garagardoa zirudien sagardoa, ez dut ongi oroitzen baina oso europarra iruditu zitzaidan. Denbora aurrera zihoan eta ez genuen gure gizonarekin jo. Beranduago, Galderrek, hamaikak aldera, aurreko gauean norbaitek bukatu ezin zuen *space cake* zatia atera zuen

disimuluan eta, noski, oroitzapenak gaur amestu dudanarekin nahastu dira; hala nago ni ere.

Une batean furgonetara sartu, kilometro batzuk egin eta Frantzian lo egitea erabaki genuela uste dut, baina Anberesetik ateratzea besterik ez genuen lortu. Ahuntzak bezala. Hegoaldera 30 kilometrora hotel eder bat aurkitu genuen errepidearen ondoan eta iritziz aldatu genuen. Giltzak eman zizkigutela oroitzen dut, logela handi eta eder batean sartu nintzela ere, baita barrez lehertzen nengoela eta ez nintzela bakarra ere, baina ez ginen guztiak. Horditurik ginenak, esan nahi dut. Iskanbila egon zela badakit baina oroitzapen nagiak besterik ez ditut eta, azkenik, lo seko gelditu nintzen. Gogoan dut Koko orduan hasi zela bereak eta bi egiten.

Gaur, esnatu bezain laster gelako alde batetik bestera doan leihora hurbildu naiz. Bistak ikaragarriak dira errepiderik ez balego. Behera begiratu eta gure furgoneta ikusi dut hoteleko sarrerara ematen duen espaloia hartua, atzeko ateak eta maletegikoa irekiak eta hotelera autoz sartzeko bidea oztopatuz. Ekipo guztia lapurtu digutela da pentsatu dudana lehen gauza, baina gaizki zegoen zerbait argazkian. Beste ohera begiratu eta Okene ikusi dut seko. Astindu eder bat eman, jantzi eta berehala jaistea proposatu diot ikusitakoa kontatu ondoren. Erantzunik ez. Kasu egitea lortu dut seko utzi gaituztela (teknikoki esanda) ulertu duenean eta bera dela kaltetuena; azken finean “nik, zehazki, hire ekipoa erabiltzen diat jotzeko”. Argi bat piztu zaio begietan eta segundo batean igogailuan zegoen niri tiraka. Hain zitzu bizian gurutzatu dugu harrera-gela bertako langileek, bezero berriekin lanpetuta, ez baitute gu gelditzeko denborarik izan eta, konturatu orduko, kopilotoaren eserlekuan nengoen Okene atzerako martxa sartzen ari zen bitartean. Denbora izan dut autoak modu onez

gelditzen zirela ikusteko eta, garranzsitsuena eta ulertezina dena (niretzat bederen) ekipo guztia bertan zegoela ikustea, utzi genuen bezala uste dut gainera; baina berriz diot, dena dago lauso nire buruan. Bi poliziek txunditurik begiratu gintuzten. Gauza bakarra dut argi: burua joan zitzaigula eta sekulakoa gerta zitekeela. Egindakoari eta nola egin dugunari buruz hausnarketa egin nahi dut ez baita nire estiloa, baina tira, zeruari begira ez dela deus pasatu. Ah eta gertatutakoa epaitu behar banu (ikusitakoak ikusita) lurralde honetan gutxienez lapurrik ez dagoela esango nuke eta Job sailduak baino pazientzia handiagoa dutela gainera. Okenek, bere humore beltzari uko egin gabe lanpetuegiak daudela dio pedofilia kontuetan. Nolanahi ere, gainontzekoak furgoi barruan hotelaren sarreraren kontrako aldean itxaroten geunden bitartean lo seko gelditu gara. Ez dakit zenbat denbora egon garen zain denboraren zantzua galdu baitut, baina kontzientzia berreskuratu dudanean motorra martxan zegoen habiatzeko prest. Orain hemen gaude leihotik begira. Norbaitek kontatu beharko dit zer demontre gertatu den Kokok hitzik egin ez dezan eta Xantal eta Galder haserre demonio egoteko Okene eta ni bi apaizgai after-hour batean baino lekuz kanpoago gauden bitartean. Ajearen kontua soilik ezin izan. Galderak egiteko unea ez da baina alu usaina dario honi guztiari, hau da, esan nahi dut, antza hartu dudala bi neskak akelarrearen erdian jolasetik haratago joan direla eta, Galderren begiradari so, honek ikusle rola jokatu duela soilik, aktiboki parte hartu nahi bazuen ere. No te jode! Gaia ukitu nahian ibili naiz kafea atera dugun momentu berberean: ez dakit gozoa ala gazia, mikatza dagoela, betazalen keinuak... Finean, irribarreari gonbitea egin nahia, baina ez da suertatu. Ez du txintik atera, ez doa berarekin antza. Bizitzaren ezustekoak eguna joan eguna etorri. Jakingo dut.

18.

Poltsikoak hutsik jarraitzen du. Autoa konpondu eta tailerretik ateratzean seguruaren azken hiru hilabeteak ordaindu gabe ditudala ohartu naiz. Aparkatu eta giltza tiraderan gorde dut. Eguzki ederrak lotsagabe irri egin dit gortina tartetan. Barazkiren bat gelditzen zait hozkailuan. Gogogabetua nago. Atzo Okenek deitu eta zenbakiek ez dutela ematen esan zidan, eskua hobe zuela eta Europara haiekin ez joatea erabaki dutela, beste modurik ez dagoela, aurreko asteburutik ez dela deus banatzeko geratu eta zenbakiez hitz egiteko eta behar bezalako agurra antolatzeke geratuko garela. Tumatxa. Askatzen hasia nengoenean. Egia esan, esfortzu handirik ez dut egin gaizki sentitzeko, denborarik ere ez dut izan ezer berririk ikasteko, baina dantzatutakoa dantzatua dago, hortaz, plan aldaketa egokitzen da. Aurreko asteburuan gertatuak izango al du zerikusirik honekin guztiarekin?. Kokori deitu diot baina ez ditu nire deiak erantzun. Astebete da ez dakidala deus berari buruz.. Musika jarri dut. Luziok Bette Davisen bi edizio paregabe eta ezezaguna nuen Karen Daltonen diskoak oparitu dizkit. Disko-jogailua, mahaia eta anplifikadorea ordena horretan martxan jarri ditut, ez zalantzarik gabe, beti bezala. Betteren diskoko lehenengo aldea jarri dut eta start botoia sakatu, hogeita hamahiru erreboluzioetan. *Come take me*, uste dut. Bira egiten ikusi eta orratza segundo eta erdi bat eutsiz (erpurua emozioz betea) zerbait gertatuko denaren susmoa izan dut. Bolumena igo eta, bai, halaxe da. Diskoaren zentzu berdinean biratu eta sukaldera noa, dantzatzen nagoela uste dut eta lau minutu baina gutxiagotan egin bidea desegin beharko dut (irinez

edo olio z beteriko eskuez ez bada hobe), nahiz eta nire buruari esan puntu horretara iristeko denborarik ez dudala izango. Guztiarekin zereginetan kontzentratu naiz. Piano elektrikoak eta baxuak nire gerria mugitzen dute. Azpiko prakak ditut soilik gainean (Borat estilokoak) hozkailuari larrua jo eta neure neurea den jatorrizko algara egin dut planotik atera eta taularen parean egokitu nauena tipula mozteko kirten horizko laban eder kamutsa eskuan (dirua dudanean konponduko dudana), baina oraindik ere lanabes bikaina dena; eta, arren, kontzentratu zaitez, eskuan duzun lanabesaz oroit, argi indarrera konektatuta dagoen makina baten kondentsadorea bezain arriskutsua da. Baina, era berean ez zaitez irudi barregarri eta ederraz ahaztu: zikoina hankak, berde itsusi koloreko zakil handientzako (eta zakilik ez!) galtzontzilloak alde batera amore emandako giharrak (eta niri zer), haragi makala, giharrik eza (zuri bezain bigunak) nire izatearen ezaugarriarik behinena dena, nire identitatearenak, nire harrotasunarenak (edukiko banu) eta zehaztu gabe dagoen nire erlijioarenak, bizarrik egin gabeko pubisarenak, barrura jaio nahi duten pikortetako ileak (gorri-zurixkak edo beltzak), sexura besterik ez usaintzen duen sexua (eta gaur gainera garbitu gabe).

Eta mesedez, barre egin dezadan. Leher nadin barrez. Nitaz lehenik, nire zaharrak erakutsi gisan eta, gero, gogo gehiagorik ez dudanean, plater sakonean arrautza irabiatua, barazkiak neure gustura moztuak, irina eta sesamoa eskura, woka bere puntuan eta oraindik ere itxura barregarriagoa ematen didann ondo lotutako mantala soinean dudanean (batere serioa ez dena eta ume itxura ematen didana), Euskalorroen ale berezia eta ondoan Álvarez Raboren *A las mujeres no le gusta follar* Kokok oparitua (Koko da, gainera, komikia gustatu zaion ezagutzen dudana emakume bakarra) estalkian (eta zer egiten du horrek hor, mila urte ikusi gabe eta Roberto Bolañoren ondoan! Beno, ez du zertan zentzua

izan behar) barre egin dezadan. Eta barre egin ondoren zabal dezadan barrea inguratzen nauenari, nahiz eta orain fisikoki bakarrik egon, eta egin mesede eta egin dezadan honetaz guztiaz, ditudan datu guztiekin (bost axola emaitzak, egin eta listo) komedia bat.

Honen guztiaren aurretik, baina, Betteren ahotsa sartu zait eta zoratzen nau (edo naun barregarriagoa baderitzozu). Niretzat abesten ari dela eta sofa gainean dantzatzen ikusten dudala dirudi, motzagoak balira galtzak ez liratekeen galtzekin, zilar koloreko etorkizuneko botekin. Oso 70. hamarkadakoa guztia eta oso sexuala (barazkien orroak olio berotan egin duten musika bezala), eta afrodita afrikarraren hile luzea ezin hobe geratzen zaiona. Asteazkenean egindako magret baten saltsa dut gordeta gaur aprobetxatu ahal dena, ez doakio erabat prestatzen ari naizenari, baina ez gaude askoz gehiagorako eta duintasun puntu bat nabari dut nigan pentsatutakoa baino hobe delako emaitza. Telebista itzalita dago, eta erabat erotuta orain abesten ari den saltsan gustura igurtziko nintzateke, eta bere aldaketan galdu. Betterenetan, alegia. Ongi pentsatuta horixe bera egiten ari naiz. Bihar egingo dut harrikoa. Gero hortzak garbitu. Eszena beste humorez bukatu dut.

19.

Opari moduan ikusi behar dut hau, gustuko dudan erritual batera azaltzen den potlash soil baten moduan, nahiz aktiboki zein pasiboki. Geure egoeran geure lanak suposatzen duen neurrigabeko ahalegina berdintzea soilki ezinezkoa gertatzen da, edo horrela uzte dugu. Aurrera eramateko behar ditugun motibazioak anitzak dira, mundu guztia ez baita era berean elkar elikatzen eta, hortaz, denak ez gara berdin asebetetzen. Dena den, gai gera kilometro dezente egiteko astero, dirua ekipo eta gasolinarako edo trenerako txartletan gastatzeko, geure patua errepideari uzteko. Beraz, urte mordo hauen ostean, ekintzara bultzatzen gaituen motibazio handieren bat behar du egon. Bizitzeko modu bat ere izan liteke zure sudur aurretik euro triste bat pasatzen ikusi gabe, ezer ez ikasitakoaren sentsazioarekin, kaka hutsa besterik ez duzula egin eta egiten jarraitzen duzula, erretzea utzi ezin dezakeen erretzaileak bezala. Baina ez da horrela. Benetan gertatzen dena da une hauek kenduz gero baldarki amildu egingo ginatekeela eta izaera hasiko litzaiguke aldatzen eta zerbait falta dela sumatuko genuke (nahiz eta hutsaren hurrengoak izan); jakizu zuk zergatik! Itsasorik gabeko kaian noraezean dabilen marinela baten moduan. Nik, gutxienez, umeen antzera pasatzen dut eta, aukeran, nahiago dut neure burua gauzak sinetsiak egiten dituen arlotea bezala ikusi eta ez jeinu galdua bezala; ulertua ez den jeinua, baina besteen kaskarkeriaren aurrean eta unibertsoaren bidegabekeriaren aurrean isildu ezin daitekeena.

Egunak dira Koko ikusi gabe eta neure deiak erantzun gabe jarraitu du. Mezu bat bidali dit “gainezka nago, 17an hitz egingo dugu, Jon eta Ludekin afaria antolatu”. Joder, hiru aste falta dira. Jon ikusi dut barrara heltzen eta hiru beltz eskatu ditu, zeinak aurreko garagardoei batuz ahulduta utzi naute, eta Luziok mokadu bat eskatzeko esan dio. Ongi esana. Alkoholak ematen duen indarrak ahotsaren tonua igo digu arinki, eta gu geu gara tonua kudeatzen dutenak, baina beti altu samarra den eremutik atera gabe. Topa egin dugu, edan, jan. Tabernaz aldatu gara. Erritualak errepikatu dugu behin baino gehiagotan. Diru putarik gabe jarraitzen dudanez (zerbait hartzera joateko bai, bederen), hau guztia nire buru barnean gertatu da soilik. Moduak berdin diola pentsatzen hasia nago: dirua behar dut eta lanik ez zait ateratzen. Eta bilatzen aritu naiz, joder. Lana aurkitzen hasiberria naizela eta zerbait aterako zaidala diote baina behar gorrian nago. Eta bai, curriculumak prestatzea pentsatu dut, etsipen honek ezezagun ditudan bideetatik narama. Aspaldi ez naizela bide akademiko hauetan ibili, hain galdua nago ez baitakit nondik hasi ere. Hasieran, gajoa ni, horren balioztatua nuen nire burua lana ate joka etorriko zela pentsatzen bainuen. Baina horrek bi egun baino ez zuen iraun nire buruan, hori izan zen oinak lurrean jartzen pasatu nuen denbora eta, noski, ahaztua nuen zenbat denboraz ibilia nintzen gisa hartan. Horretan jakitun bat naiz.

Oinez noa lokalera honetan guztian pentsatzen dudan bitartean. Lokal berrira; izan ere azkenean lekuz aldatu baigara. Baldintza egokietan jarri behar dugu oraindik, lehenik soinua isolatzen saiatu gero beste guztia poliki-poliki ongi jarri ahal izateko; juxtu nahi dugunerako. Gastrosonikak itxaron egin

beharko du, baina momentuz kontent senti gaitezke. Denbora askorako izatea espero eta desio dut. Oraindik, bere garaian aktibitate industrialerako eraiki ziren eraikuntza (biltegi edo ekoizpenerako tailer txikiak) eta eraikin modernoagoak (soilik bizitzeko balio dutenak) dauden lekuan dago. Lehenengoak beren karga-jasogailuekin eta gune erraldoi irekiekin, loft moduan. Pintore eta beste talde batekin elkarbanatzen dugu azkeneko pisuan dagoen lokala. Bakoitzak bere gune mugatua du eta, hau, inoiz bizi gabeko esperientzia da lehendik eta indartsu nago, ongi sentitzen bainaiz. Luxu bat. Etxetik urrun xamar geratzen zait, baina horretan irtetean pentsatuko dut. Gainera autoa berreskuratu bezain laster ez dut arazo hori izango. Heldu bezain laster ohar bat ikusi dut Jonen bateria gainean “joan beharra dut, deituko dizut”. Ez dakit poztu. Nire anplia piztu, garagardo bat ireki eta gailu mordoa dagoen lekura hurbildu naiz. Nire maletina bilatzen nabil, hau da hau anabasa, lan ederra dugu aurrean soilik nahaste hau konpontzen! Sineste ezina da horrenbeste traste metatu ahal izatea. Aurkitu eta ireki dut. Kableak eta pedalak atera dituk. *Loopak* egiteko tramankulu txiki hori behar dut orain eta espero dudana baina lehenago topatu eta nire izkinara hurbildu naiz. Denbora dut eta nire ametsetan galdu naiz.

20.

Luziok bere furgoia gidatzen ari da, posizioz aldatu berriak gara eta Pancorbo inguruan gaude. Burgosetik gatoz, anaia ikustera joan gara eta oraingoan bai gustatu zaigula. Hori da jotzea, amatxo maitea! Jazza gustuko dut. Ez dut guztiz ulertzen, eta horrek erakargarriagoa izatea egiten du; horrexegatik ez dut ikasiko modu sakonean, beharrezkoak dituen suspentse eta giroa mantentze arren. Nire anaiagatik poztu naiz. Haur zenetik nahi izan duena lortu du. Hala ere, konpas eta pentagramen artean beti jarri ohi zuen keinu sorgindu hori beste nonbaitera joan dela dirudi eta ez du zertan derrigorrez txarra izan behar. Egoera kontrolpean duela esan nahi dut, antza. Barrez dabil, erabat kontzentratuta, eta konfiantza du egiten ari den nahasketaren emaitzarekin, bere gustura manipulaturik geu izan gaitezten sorginduak. Hori berria dela uste dut. Luziori kontatu diot eta dedikazioari buruzko elkarrizketa bat hasi dugu eta nola dedikazioak lortzen duen diziplina bat moldatu eta, nolabait esateko, zarenaren bertsio hobeagoan bihurtzea; beti ere aldaketa ahalbidetzen duten aldagai mordoa ematen badira. Ja. Ni ez naiz etsenplu gisa har daitekeen adibidea, kasualitatearen eta antimetodoaren amorantea naiz, eskolen sabotatzaile tarteka. Prozedura sistematikoak zuhurtasuna ematen duela beti defendatzen dut, objektuari zentzua ematen dio eta egokitu egiten du behin eta berriz bilatua eta behatua, abduzitua ahal izateko, baina arima eta espiritua kenduz, biluzik utziz, ongi maneiatua estatua greko baten antzera. Ez dut ezer berririk esan.

- Ortodoxia hutsari buruz ari bahintz, ulertuko niake dioana baina orokorrean ari haizela uste diat, ez duk horrela? – erantzun du Luziok.

- Gutxi gorabehera.

- Hortaz ez nagok ados. Esaten ari haizen espiritualitate hori (eta uste diat ez habilela kristautasunaz hitz egiten) ez zegok gauzetan. Egotekotan, norberaren baitan zagok eta horrexek bultzatzen hau ari haizenean zerbait gehiago jartzea. Zorteak badu hemen zer ikusirik, asko gainera, jakina baietz! Izan ere, bizitzak jartzen hauen lekuan jartzen dik eta norberak bere burua gustuko izatea zorte kontua dela esango nitek. Izan ere, norbera egiten duenaren ondorio zuzena duk eta metodoan zerbait gehiago aurki dezakeela uste diat. Are gehiago, ez al duk uste sorkuntza indiskriminatua sorkuntza metodo tipo baten parte izan daitekeela? Iibilitako bideari atzera begirada bat emanaz, sistemaren kanpoan legokeen ikusle batek besteentzat balioko lukeen kaosean oinarritutako metodo bat diseinatzea posible izango luke?

- Galdu egin nauk, Zertarako?

- Neu ere. Jarriko al diagu musika?

- Emaiok.

Musika ez da entzuten. Esku-frenoaren ondoan nire etxeko musika ekipoaren eta aspaldi oparitu nion bozgorailua dago. Beti izan da trebea eta barregura eragin dit gogorazteak furgoian sartu garenean bazkaldu ostean. Kableak aterako zitzaizkiola esan dit eta, bai, kable gorri eta beltzak euren lekuan jartzean musika ziztu bizian atera da bozgorailuetatik. Monoan. Horrexegatik damara soilik musika zaharra, ez dena zaharkituriko musikarekin nahasi behar. Gogoko dut gizon hau

- Beti izan zarete alper xamarrek-, dio Jack Herer erretzen duen bitartean.

- E?

- Eraman duzuen (oraindik daramazuen) autodidakta konbentzituen jarrera, eskola zaharrarekiko hiesa, izpiritua arrazoiaren gainetik dagoenaren ustea gehiago zagokiok onartu gabeko nagikeriari jarrera intelektual garatu bati baino. Gainera argitu beharrean zaudete, jada ez baitzarete nerabeak. Ez al zenuten esaten edozein mugida intelektualei eta modernistari uko egoten zeniotela? Diot zuen hizketa moduak kutsu intelektuala duelako, zuen musikak bezala. Eta pixka bat modernoa ere, baina ez *plant avant garde* moduan, *avanti, avanti*, gehiago *avant de rugby* moduan, kar-kar. Zuen musikak, onerako nahiz txarrerako, rock unibertsitarioaren soinua izan du beti, nahiz eta MC5tik hurbilago egon beharko zenuketen. Eta MC5 diot eta ez Stooges. Badakik non dagoen arazoa? Zuek ez zaretela benetako ez gezurretako txuloak. Geroz eta ziurrago nago zuek alper hutsak zaretela, teknikari denbora gehiago eskaini izan bazeniete zuen diskurtsoa beste bat izango litzateke orain.

- “Zuek” dioanean, nori buruz ari haiz?

- Jon eta hitaz.

- Eta Koko?

- Koko aparteko kasua duk. Nor den ere ez zekik, are gutxiago zer nahi duen edo zer egiten duen.

- Neuk ere ez, uste diat. Baina arrazoi duk, alferrak gaituk. Horrek ez al ziguk iruzurgilean bihurtzen ere?

- Neurri batean, bai, baina mundu guztia duk fartsa. Entzun ezak, hik esaten duk ez duala nahi honi buruz arrazoitu, sentitu nahi duala, unea aprobetxatu besterik ez duala nahi gero ez baituk jakiten, bizitza akzioa dela, sormena... Joder, egin ezak ba!. Hi haiz eztabaida honi beti hasiera ematen diona. Motel, ez dik zentzurik. Era batean diot zuek erratz bat ere ez duzelako saltzen, beraz kerik ere ez. Zuen musika, iraintzeko asmorik gabe, ez zaiok inori axola.

- Ez nauk iraindu, guri interesa sortzea nahikoa duk.

- Hori bera esan nahi nian. Alegia, badakik saltzeko titi handi bat eszenatokian jarri beharra dagoela, mende hau emeena duk.

- Kar-kar, pasatzen ari haiz. Aspaldi habil txantxa berdinarekin, zer duk? Zera izango duk kobazuloez inguratutako sima horretan pinu bakarra haizenez emakumeenganako sentimendu bitxi hori garatzen ari haizela, ia misoginiatik gertu sexu ahularekiko aparteko mirespena izaten hasi zena, horrela esatea gustuko duan bezala...

- Ahula? Ez iezadak adarrik jo!

-Hain ongi zaindua eta maitatua egonda hik duk adorea! Hirea humore beltza duk edo alua izateko urteak iritsi zaizkik? Lehenengotik gehiago dela uste diat baina azkenaldian... Koño,

non geratzen dituk hire manera suabe haiek “maitea”, “bihotza” eta gisakoak?

- Umore beltza, zipitzik ere ez. Eta azkeneko horretatik noski geratzen zaidala, baina arropa garbia bezala gordetzen diat. Gertatzen duk baboarena egiteko batere gogorik ez dudala egun bakar batez ere gehiago. Begira, nire hiru alabek nahi dutena egiten zidatek, eta Amaiak ez zidak kasurik egiten eta, nahiz eta erotua nauten eta ezingo nintzatekeen bizi haiek gabe, harrapatuta nago, baina harrapakin ausartegia harrapariaren aurrean bezala; beraz haserre nagok. Orain, ez hadi pasa, ez hitzak ñabardurak galdu, misogiaz deus ez. Badakik ezetz.

-Bazekiat, bazekiat hi... baina honek guztiak sexuarekin zerikusia duela uste al duk? Ez al duk izaerari dagokio zerbait izango? Emakume bati ezetz esan ezin duen batek esaten dik.

-Eta hi al haiz libertino gisa doana bizitzatik?

- Ezetz, ezetz, orain hi pasatzen ari haiz. Baina erantzun zaidak.

- Joder, libertinoez ari garelarik, oroitzen haiz?

- O, pater nirea! Hain da sentibera zati hau ezen nirekin akabatuko baituk.

- Eta niri zer asetzen nauen bitartean?

Justine.
Sadeko Markesa.
1791.

- Kar-kar-kar.

- Ja, juxtu esaten ari ninduana.

- Hire arreba bezala bukatuko duk, noizbait hitz egin diagu. Gizonak hau, gizonak hura eta gauza bat argi, ez diagu e-zer-ta-ra-ko balio. Berarekin egotea ez diat kasik jada gustuko, kaka bezala sentiarazten zidak, zuzenean. Eta gauzak nola diren, hogeit urte hauetan bikote leiala izan duk, bi seme zoragarri, potrohandi xamarrak aita bezala eta tipa... lesbiana egin da. Izan ere, gaur lesbiana egin bazaitezke zertarako jaio hala!? Beste hark zioen moduan (alu eta erresumindua), eta kontu egin ezak inoiz ez ziela emakumeei egun begiratzen dien gisan begiratzen, edo hori iruditzen zaidak niri bederen. Harira, gogaituta nagok eta nahasi egiten nauk, zera zioz gutxi gorabehera homosexualitatea primeran doakiola, kaskarin halakoa. Gona bat balitz bezala!

-Kontxo, arrazoi duk. Baina ez al gintuan hire anaiaz hitz egiten ari?

-Zuzen hago, marikoia. Maritxu halakoa. Utzidak hurbiltzen...

-Kendu, joan hadi hemendik! Lekua! Itsusi halakoa!

-Banengoen ni... Aizak, eta nik jartzen badizkiat titiak? Hala, bederen, politikoki zuzena litzateke, eta diskoak saltzea ere ez legokek batere gaizki...

Pare bat bisigu izango bagina bezala jarraitu dugu berbetan-erdi oihuka musikaren bolumen altua (propioki oraingoan)) dela eta. Bidenabar, gaur esandako txorakeri guztiak ahazteko ados jarri gara hauetaz ongi horniturik baikaude bizitza osorako. E, deus ez dugula serio esan, argi gera bedi

Azkenik, 50.hamarkadaren bukaera eta 60.hamarkadaren hasierako garaiei buruzko ikasgai majistrala jaso dut eta monoan (eskuz) grabaturiko grabazio ederrez hitz egiten galdu gara, hauei darien freskotasunaz. Grabatutako musika oro birtuala dela esaten amaitu dut, eta axola duen bakarra zuzeneko musika dela. "Hor ados gaudek, baina hau grabaturik ez balego ezagutu ez izanaren plazerra galduko genikek" esan dit Luziok, eta kriskitin batzuk baino alaiago agurtu gara. Ez aurretik lehenago sekula entzun gabe baina itxura ona duen nuen erokeri bat Burdeosera ikustera joateko geratu gabe. Hilabete bukaeran ikusiko gara, beraz.

Joder, puztuta sentitzen naiz. Nerbioek eragindako kolapso txiki bat kokatu da nonbait nire buruaren sustantzia grisean, halakoa da bozgorailuetatik ziztu bizian atera den ahots indartsua. Rekristo, bi aste baino gutxiagoan espedizionario ezinegonan asetu dituzten bi aurkikuntza (maisuak esango lukeen bezala) eta formatu berdin baten barruan gainera; norberaz barre gogotik egiteko aukera paregabea. Argi baino argiago ikusi dut, bestalde, Bette Davis ezagutu dudana iturri beretik datozela biak. Esker mila Luzio, beste puxtarri bat, eta badoaz... Zelako gustua duen gizon honek. Zaplateko bat noizbehinka zein ona den, izan ere, batek ia dena lotua duela uste baitu bestela. Ba begira, hauxe du musikak behin eta berriz harrapatzen gaituela, dela alemanez, dela ingelesez, jakin ezazu zergatik! Traizioz gainera (behar duen bezala), izan ere, horrelako aurkikuntza oro labankada zuzena behar du izan bihotzera eta pieza berri bat gure altxorak gordetzen diren kutxa zaharrera, odol koagulatuaekin.

Jonekin gelditua nago, hau partekatu beharra dut. Karen Dalton jainkosa bat da eta zerura begira hitz eman diot nire buruari ez dudala asko sakonduko honen inguruan grinak iraun dezan. Une hau izarra ez dadin debekatua Interneten ibiltzea. Oraindik ez, bederen.

Jonek sorpresa bat eman dit ezaguna egiten zaidan baina inon egokitzen ez dudan pertsona batez lagundurik etortzean. Bere burua aurkeztu du, Vargas Hurtado, eskua zabaldu eta ordura arte inoiz hitz egin ez dugula ulertu dut. Bere andaluz azentuak jakin-min apur bat gehitu dio. Zertaz ezagutzen dut nik tipo hau?. Atsegina dirudi, alaia, graziarekin baina samurra eta lasaia era berean. Kontrabaxua jotzen du eta Alemaniatik itzuli berria da, non azken 3 urteak egin dituen eta non Lud ezagutu duen lagun komunak izaki. Eta bai, orain oroitzen naiz aireportura Jonen bila joan ginenean honen auto barruan larrua jotzen ari zen tipoa da. Trapi batekin omen zeuden eta hargatik zuhurki agurtze hori. Kontxo, ez nuen halakorik espero, ahaztua nuen guztiz. Berlinen post-rock izendatzen den talde horietako batean jo zuen eta bere eskola jazz da, ozen esan dut nahasketa ederra dela. Hizketaldia pizten doa eta Jon diskoen kaxetan bila dabil (Jack Herer nonahi giroan) eta anabasaren aurrean zerbait esaten dabil hortz artean, baina azkenean topatu du bila zebilena eta disko-jogailuan jarri du. Kafea barra-barra prestatu eta sukaldetik bertatik igartzen dut modu argian Tood Trainerren bateria, lehen bonbo kolpearekin batera; olatuak itsasontziaren kaskoa kolpatzean eta balantza eragiten dionean (emozioz, baina) bezalakoa da topaketa hau. Vargasek ez du zuzenean inoiz ikusi eta galdu duena adierazi nahi diogu, nolabait. Eta nahiz eta Karen entzuteko geratu, gauzak zer diren, kaskoaren gainetik pasatzen diren olatuen artean nabigatzen aurkitu gara eta nahiz eta arriskutsuak izan zubitik miresgarriak iruditzen zaizkigu, eta zeruari zin egin diogu ukabilak altxaturik eta bere gurariak madarikatuz, zergatik gu? Denbora aurrera doan heinean, komunean milioika gauza ditugula ohartu gara eta hiruron artean dagoen lotura balekoa izaten hasi da. Planak egin ditugu, kafetik garagardora igaro gara eta Jackekin nahasiz bereak eta bi egiten

hasi da eta bat-bateko adiskidetasunak posizioak hartu ditu eta indartsu egin; batez ere, Vargasek baimena eskatu didanean eta nire zaharraren gitarra hartu duenean (gereziondoz egindakoa eta duela hamabost egun etxean daramatzana) eta nola laztantzen duen ikustean txunditua utzi nau, zer eskuak!

Mutu utzi gaitu.

22.

Ludmilaren urtebetetzea da gaur. Ezusteko festa antolatu dugu Kokoren etorrerarekin bat egiten duena eta, hala, bi txori tiro bakarrez akabatuko ditugu; nahiz eta gero gehiago izan, tiroak esan nahi dut. Jonen etxean mahai bat bost aulkiekin prestatu dugu eta lanean buru belarri sartuak gaude. Biak mantalak jantzita gaude eta eszenatokian egongo bagina bezala mugitzen gara sukaldetik, pare bat barrabilekin eta makilatxoarekin. Ez epaitu. Zigalak, orburuak txirla eta barazkiekin. Txerri-hankak. A, eta muskulu batzuk sukaldarientzat. Sesamoa, olioak, soja, gatza, irina. Tipula eta baratxuria. Taula eta labanak. Plantxa, presioeltzea, lapikoa, woka, zartaginak eta lurrinean sukaldatzeko erabiltzen den banbuzko traste hori, ez dakit zer izen duen. Xestoa dio Jonek. Ah. Ardo beltz botila irekia eta bi kopa mahai gainean. Ardo zuria kamaran dago. Musika, Sonic Youthen azkena (aurrera mutilak!). Gaur, laguntzaile soila naiz sukaldean, eta aginduak betetzen saiatu naiz. Jon sukaldari trebea da eta, gainera, bere ogibidea izan da urte luzez. Soilik labanak nola erabiltzen dituen ikusita batek erraz antzeman dezake hori. Asko irakatsi dit eta oraindik ere egiten du. Lupia dago mahai gainean eta udako eguzkiak baino argi gehiago du, distira eta usai ona dario. Zapore hobe izango du, amak zioen bezala (goraintziak berarentzako) . Perrexila eta txakolina. Tipula mozteko labana altxatu eta zeharka begiratu nau Jonek eta juxtu bateria erritmoa markatzen hasi denean hasi da Jon ere konpasarekin bat lanean. Argazki ederra, gustatu zait eta nik begiradaz galdetu diot eta, berak, taula eta barazkiak seinalatu dizkit eta keinu txiki batez zera adierazi dit:

joan hadi hori prestatzen eta igo ezak hire gitarraren bolumena. Txerri-hankez bera arduratuko dela dio, baina nik arreta jartzeko. Lelotua begiratu diot. Lagun asko ditut sukaldari, batzuk besteak baino hobeak, zentzu guztietan, baina ez denak irakasteko prest.

Barazkiak prest, muskuluak banbuan eta kopak eskuan gaudenen eta ez daudenengatik topa egin dugu, Txerri-hankak prest eta guztia lotua dagoela baieztatu dugu: afaldu ondoren, hamaika eta erdietan, giltzarik gabeko bizilagun bat tinbre joka dagoela esanez, tupustean, kabaz lagundurik *troupes de chocei* bide emango diegu.

Zigalak garbiak, orburuak egosiak, muskuluak eta botila ardo erdia ere izorratua dagoeneko. Nabari dut. Azkenean heldu dira Lud eta Koko gu baino mozkorragoak, izorrai. Atzetik Txua Berokiak erantsi, besarkatu eta musukatu egin gara. Mahaian eseri eta di-da edan dute beltz botila. Txuak lasaiagoa den zerbait jarri du. “Zerbait” esatea Miles Davisi buruz ari garenean gustu onari irain egitea da. Eta ona esateko modu bat da. Jon eta biok elkar begiratu gara, espero diat lo ez hartzea, diot. Lasai hadi, entzun dut. Plantxa berotua dago eta Jonek zigalak bota bezain laster hauek kantuan hasi dira. Otordua hasia da. Kokok Pirinioetatik beste aldera egindako bidaiari buruzko txorakeriak kontatuz giroa jarri dio gauari, batzuk badute grazia. Beste batzuk, ez. Oraindik orburuak (sekulakoak daudenak, bestalde) amaitu gabe moztu egin diogu Austriako mugan tangan kaka (literalki) egin zuela esan digunean; ezin eutsi dio zerri halakoak. Benetan baina, Txuak ea tangak euskarri gisa egin zuen edo galtzak izan ote ziren fardel gisa egin zutenak eta mugako jaunek furgoitik jaisten utzi zioten jakin nahi zuenean moztu diogu, zikin halakoa! Guztiok

dakigu lehenengoaren erantzuna eta bigarrenkoa topa egiteko unea iristen den arte uztea proposatu dugu; halaz geratu da atzeratua gai beltz eta usaintsua. Festa eta txantxa. Itxura ezin hobeia izan arren probatu ez ditudan barazkiak eta gero zerri-hankak heldu dira (paregabeak). Sabelean, baina, lekua gelditzen zait lupiarentzako eta “lupia zain naukak” batekin lasaitu naiz. Geldialdia egin eta zigarroak piztu eta kopak bete ditugu. Solastatu egin gara, solasaldi hutsala eta beharrezkoa. Begi bazterretik Koko ikusi dut; ongi ere. Jon eta ni altxatu egin gara, azkenaurreko ekinaldia. Berebiziko usai ederra dago sukaldean. Jonek oihala altxatu eta eszenak itxura ederra du: ikusmina asetzen duten anoak. Ados gaude guztia ezin hobeia zegoela epaitzean eta chefa txalotu dugu. Bada plateren ordena gustatu ez zaionik ere (ze egingo zaio!), geroz eta txolinagoak gara. Gero, postrea. Idorra eta gozoa. Ordurako denak altxatuta gaude eta Kokok jarri duen Amon Tobin entzuten da ero moduan disko-jogailuan. Txuak zer den galdetu du eta Ludek (erraturik) Cujo dela erantzun du. Ludek galdu du eta interfono entzun da. Igogailua dardarka dator bi txandetan eta zortea botea da.

23.

Kafearen usainak esnatu nau. Larrugorrian nago Kokoren ohean, gose eta nagitua. Kantuan entzun dut. Ohetik, kalean egun grisa ikusten da logelako giro goxoarekin kontrastatzen duena. Buruhausgarriaren zatiak elkartuz doaz aje usaiarekin eta irudiak joan etorrian dabiltza mozkortuak oraindik, erotuak. Ikustekoa da berrogeita zortzi ordu zenbaterako ematen duten! Koko erretilua eskuan sartu da gelara soilik kamiseta darama soinean, usai txarra eduki behar duen nire kamiseta. Esan eta sudurra taponatua duela esan dit eta ohera sartu da. Sartu aurretik bere gorputz biluzia ikus nezake eta berriz desiratzeko parada izan, baina babotuta geratu naiz. Tea eta kafea daude. Erroskilak eta ogi txigortua olio eta gatzarekin. Kafea eta ogia niretzat. Erroskilak eta tea hiretzat. Oinekin jolasean gabiltza gelak ilunpean dirauen bitartean. Gelak odei zuria dirudi. Politagoa ikusi dut, ehun aldiz gutxienez aldatuko zuen dagoeneko. Orain pixka bat aseptikoa dirudi, baldarik gabe, koadroak kendu ditu eta argiak lurrean daude. Gure arropak itzal bihurriak egin ditu. Gero, berriro, nire oinetara itzuli da. Kopetatik behera ilea erori zaio. Te tanta du bularrean, ogi apur bat nirean, erretilua lurrean utzi eta larrutan hasi gara. Existitzen al da beste ezer?

-Ei.

-Baaaaaaaai?

-Bainu bat?

-Bai, baina itxaron apur bat.

-Lotan geldituko haiz?

-Ez, apurtxo bat soilik.

-Bai edo ez?

-Utzi!!!!!!!.

24.

Nolakoak diren gauzak. Oker dagoena zuzendu egiten da eta alderantziz. Lana aurkitu dut musika tresna biltegi batean. Astebete bada Koko eta biok elkar lo egiten dugula eta ongi sentitzen naiz, arrazoizkoa den zalantza batean murgildurik, tinko eta kaos dosi beharrezkoarekin, baina oso ongi. Bestalde, Jonek Ludekin urtebetez Berlinera bizitzera dioala esateko deitu zidan atzo. Pozten naiz bergatik, haiengatik baina izugarrizko nahigabea sentitu dut. Guztiagatik. Nire bizitzan botako dut faltan, lokalean, kalean. Duela hilabete beheraldia izango nukeen, baina ez une honetan. Lokala ez dugu egokitzen bukatu, baina ez dago presarik jada, eta Vargasi deituko diot ea nondik jo zehazteko; izan ere, ongi moldatzen hasiak gara. Hasiera berri batean pentsatu behako dugu, bizi osoan berdin. Baina etorkizun hurbila polita ikusten dut eta zukua atera nahi diot. Kokok besotik heldu eta tira egin dit taberna batera sartuz zerbait hartzera, eta gogotik musukatu nau. Ametsetan ote nabil? Nolanahi, erne mantenduko naiz dagoeneko eskarmentua baitaukat. Kokok beti harritzen bukatzen nau eta ez beti onerako. Baina ezin diot begiratzeari utzi, sorgindurik nauka. Bi ardo eskatu ditu, bat luzatu eta begia itxi dit. Hiru aste barru grabatzen hasiko direla eta ea taldera batzen naizen esan dit. Neure bizitzarekin ez dakidala zer egin erantzun diot eta berak muxu batekin isildu arazi dit, oraindik konbentzitzeko denbora duela eta ardoa oso ona dagoela esan dit, eta baita bere ezpainetan hain ongi entzuten dena ere: “goza ezak”.

25.

Bilbo-Madril-Berlin. Aireportuko kafetegian garagardoak azken uneraino edaten egon gara, Jonen erritmoa errekorra hausteko modukoa da; uhala lotzeko orduan anestesiatur egon nahi duela dio. Ludek hasperen egin du. Travel puntuak dituzte eta Madrilerainoko bidaia doan dute. Gaua bertan pasako dute eta Luziorekin elkartuko dira, zeina bere agendari fidela, agendako egunak xahutzen ari da lanean; lan madarikatua. Gauean flamenko ikuskizun bat ikustera joango dira. Ez dut artista ezagutzen, baina Luziok aukeratu badu ziur ona dela. Jonen autoa matxuratu zenean utzi genuen lekuan utzi dugu autoa. Antza, zepoa jarri zioten autoari, bi hilabetez egon da bertan eta, azkenik, garabiak eraman du. Dena oso Jonen estilokoa. Bahikuntza gutuna iritsi zitzaion, baina zer bahituko diote ez badu konturik ez ondasunik. Gertatutakoaz txistea egin eta zeruari eskaini dio topa (leku berberean uztea erabaki du autoa). Gero korroskada egin eta “zerri zikina” entzun da bere sorbaldaren atzetik. Ludek hasperenka jarraitzen du eta Koko gehitu zaio. Ez da hainbesterako. Ez gaude hileta batean, joder, zer tristezia eta zer hostia! Akaso betirako adio bat al da hau? Bidaiariak megafoniatik deitzen dituzten bitartean Jonen hortz artean komunera joan behar duela dio eta denbora askoz ez luzatzeko esan diogu. Goseak pasada txar bat egin dit eta pintxo garesti bezain ez oso ona jan dut. Hasiberri halakoa esan dit Kokok. Arrrrrg, zer amorrua ematen didan nire atean neronek gola sartzea! Jon itzuli da eta berdeak dauden lekuraino lagundu ditugu, x izpien zintara, bidaiarien kontrolera, non bat (barka

digresioa) jaiotze hutsagatik susmagarri bihurtzen den, zer lastima hain jator gentozen eta! Argazkia atera diet eta polizia niregana dator korrika eta kamara kendu dit oiherarte (gu zur eta lur) ez dakit zer lege urratu dudala esanez. Ez nabil txantxetan. Jendea harritua dago (ez gara bakarrik, antza) eta beste koloreko poliziak agertu dira, eskuduntza kontuak izango dira, eta euren kobazulora eramane gaituzte gauden lekutik ez oso urruti. Biratu eta Jon ikusi dut barrez lehertzen Lud harrihurtatik ezin atereaz dabilen bitartean. “Bidaia ona” oihukatu eta biharko egunean zer kontatua badugula pentsatu dut. Begirada orok zaintzen gaitu eta gugan errugabetasun oro baztertua da. Polizientzako ez beste, zeinak behin terrorismo kontuak bazterturik, Kokori argazki-kamara bueltatu diote. Txartelik gabe, hori bai. Irtetea elkar begiratu eta zer demontre gertatu den galdetu diogu bata besteari. Hegazkina dagoneko aireratuko zen eta hemen ez dugu egitekorik. Eskailera mekanikoetatik eskua elkar harturik jaitsi gara eta autora korrika goaz. Eurria ari du barra-barra. Behin barruan habiatu aurretik ordaintzeko behar den txartela bilatzen hasi naiz, baina konturatu orduko Koko gainean dut nire ahoaren bila eta nire eskuak baztertu ditu egiten ari nintzenetik.”Isil hadi oraindik denbora zagok” esan dit balizko ezein kexu isilaraziz eta azaltzen zaila den maliziarekin begiratzen.

-Badakin hau deserosoa dela, ez zaidan gustuko hemen egitea.

-Neuri bai.

Amaiera.

Ez dut deus zin egin, baina arautegi moduko bat onartua dut nire baitan. Prest nago, matxinatua jarraitzen dut. Klandestinitatean igaro diren festa gauak eraikitako pasioa eta ardo onez jarraitua, behar izanez gero.

Dantzan nabil gitarra akorde distortsionatuen gainean eta jolasa nire bizitzen parte da. Iheslari, telebistak jarraitzen nau eta estropezu egin arazi nahi dit abestien izarraren hanka ederrekin. Baina bizirik nahi nau, alu halakoa.

Konplizitatea, koño; keinu bat eskatzen diot txantxari, nazka apur bat arrazoiari eta noizean behin musu beltz bat desengainuari, asperdura dinamitatuko zuen nahasketarekin gurutzatu nintzen. Hautsontzia hustu behar da, gaizki erretako zigarro-puntak arimatik barrena... Neure utopiak zeureak baino gutxiago ez dira. Hasiera arte itzul gaitezen, kaosa muinean, ume basatiak ginen garaietaraino.

Gaur egin diezaiogun gorazarre zapi beltzari adierazlea goraipatuz. Bihar bere esanahian ezkutatuko naiz.

Neurrigabeko maitasuna, nirea den guztiaren hasiera, zeinak sabelean dardarak marrazten dituen. Musketa. Ez dago emozioen

erdira doan bidaia honetan programarik. Baliorik ez du ikasiak. Erratu egingo naiz berriz ere. Nahasten duen informazioz beteriko ekaitza, eta ez dena geratzen. Ohikeriaren zaintzailea koldartu egiten da eta ametsak bere horretan darrai: lausoa eta hutsune aunitzekin betea.

Konexioa eta erritmoa. Eskutik helduta soka saltoan jolasten dira kafe- antzokian.

Horditzen gaituzten frekuentziak hor bertan daude, eskuragarri; potentziometroak biratuz guk nahi eran egokituz berauen intentsitatea

Bideen gurutzaketa, guztiak dira balekoak eta bakar batek ere ez du Erromara zuzentzen (ez da beharrik ere). Haizeak lerrokatuko ditu esaldia osatuko duten hitzak.

Zeroak eta batak euren pisuz erori dira. Deuserako ez du balio sexu errazeko bilatzaileak, ziurra eta kreditu-txartelik gabea. Ñu usaia dago eta galeraden zuzentzailea ez dabil.

Neurtutako autosufizientzia, berezko ausardia. Arriskua onartzen dut. Ez dago ebaluaketarik zure estimuaren xentimo bat baino gehiago balio duenik. Banatzen ez diren puntuak ez dira ez irabazten ez galtzen. Soilik metrikarik gabeko errima **IZATEA** lortu behar da eta metrika errimarik gabe.

Helduen arazoak euren arazoak izaten jarraitzen dute, eta eurenak bakarrik. Gau honetan ohea aise menderatuko dudan itsaso zakarra izango da eta ronak sua baretuko du. Grabagailuak monotoniaren kaleetan une lotsagarriak jasotzen jarraitzen du. Standby. Ez dago arazorik ez badut ulertzen. Suharra naiz, eta zorteko nago. **FUNTZIONATZEN** duelako. Ahal dudalako.

Orain bai, amaiera.

Hizkuntzari

Axi ta Eva

Itzultzaile ez diren lagun bi

Idazlea ez den beste bati

Aupa, Borxa!

Errimak, Lainon

Sukaldean, Haizea

Eskua zabaldu, eta gu, hatzei so...

Lagunen artean, beti hobe